

Komunitateak ehunduz

HERRI EKIMENETATIK

Mari Luz Esteban Galarza (arg.)

Amaia Agirre Miguélez, Josu Amezaga Albizu, Edorta Arana Arrieta, Iñaki Barcena, Maggie Bullen, Ion Andoni del Amo Castro, Carmen Díez Mintegui, Maddalen Epelde Juaristi, Irantzu Fernández Rodríguez, Mainer Galardi F. Agirre, Miren Guilló Arakistain, Jone Miren Hernández García, Iker Iraola Arretxe, Mainer Iturbe Mujika, Josu Larrinaga Arza, Marta Luxán Serrano, Laura Muelas de Ayala, Andere Ormazabal Gastón, Ainara Santamaria Barinagarrementeria, Uxue Ruiz Romo, María Ruiz Torrado, Miren Urquijo Arregi, Julen Zabalo Bilbao, María Zapata Hidalgo



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Komunitateak ehunduz
herri ekimenetatik**

Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik [Recurso electrónico] / Lantaldea, Mari Luz Esteban Galarza (coord.) ; Amaia Agirre Miguélez...[et al.]. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2020] . –1 recurso en línea: PDF (100 p.)

Bibliogr.: p. 97-99.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-249-9.

1. Movimientos sociales – Gipuzkoa. 2. Participación social – Gipuzkoa. 3. Ciudadanía.
I. Esteban Galarza, M. Luz, coord. II. Agirre Miguélez, Amaia.

(0.034)316.42(460.154)

Aurkibidea

1.- Ikerketaren aurkezpena	11
Estrategia metodologikoa	15
2.- Testuingurua eta kokapen teorikoa.	19
3.- Arrasaten komunitatea(k) ehunduz:	25
<i>Ainara Santamaria Barinagarrementeria,</i> <i>Ion Andoni del Amo Castro eta Edorta Arana Arrieta</i>	
Herri-mugimenduen barne-funtzionamenduaz	26
Kanpo-harremanak	29
Aniztasuna, errealitatea izan nahi duen erronka	31
Ondorioak	32
4.- Donostiako Emakumeen Etxea: (DEE)	35
<i>Laura Muelas de Ayala, Carmen Díez Mintegui,</i> <i>Miren Urquijo Arregi eta María Zapata Hidalgo</i>	
Zer testuingurutan sortu zen	35
Kogestioa: formula aitzindaria	36
Lokal ideala: ebatzi gabeko auzia.	38
Feminismorako erreferentzia-gunea	38
Martxan dagoen eta hazten ari den elkarte.	39
Aniztasunari aurre egiten eta aniztasuna artikulatzen	40
Eguno espazioaren mugak	42

5.- Errenteria. Aniztasuna eta horizontaltasuna antolatzen: . . . 45

*María Ruiz Torrado, Irantzu Fernández Rodríguez,
Maggie Bullen eta Amaia Agirre Miguélez*

Antolatzeko, parte hartzeko eta erabakitzeko moduak	46
Eragileen arteko (botere-) harremanak.	48
Aniztasunaren artikulaziorako prozesuak eta tresnak	50
Feminismoa eta aniztasuna.	52
Beti izan gara anizkoitzak?	53

6.- Kulturarteko Plaza Feminista.

Hernaniko Emakumeen Etxea: 55

*Miren Guilló Arakistain, Marta Luxán Serrano
eta Mari Luz Esteban Galarza*

KPF eraikitzearen prozesuaren inguruko zer-nolaketak eta eztabaidak	57
Aniztasunaren kudeaketa: abantailak, zailtasunak eta estrategiak .	58
“Elkarrekin gauzak egitea”: kontrahegemoniarako aliantzak.	60
Zenbait erronka	60

**7.- Herri-mugimenduen jardunbideak, eraldaketak eta
elkarlanak sozioekologian: 63**

*Iñaki Barcena, Josu Larrinaga Arza
eta Andere Ormazabal Gastón*

Mugimendu ekologistaren antolaketa: asanbladak ardaztutako egiturak	64
Elkarlan sareak eta aliantzak eragin-ahalmena hauspotzeko bidea .	65
Afinitatea aniztasunaren aurrean	66
Erakundeen eta mugimenduaren arteko harreman-sareen ezinak eta eginak	67

8.- Herritartasunaren (ber)konfigurazioak: 69

*Maddalen Epelde Juaristi, Julen Zabalo Bilbao
eta Iker Iraola Arretxe*

Herritartasuna dimentsio eta ardatz desberdinen arabera	69
Herritartasun objektiboa eta subjektiboa	70
Herritartasun aktiboa eta pasiboa	72
Maila makro eta mikroan kokatzen den herritartasuna	73
Erakundeen eta herri-mugimenduen baitako herritartasuna.	74

9.- Hainbat ondorio	75
Eragileen eta herri-mugimenduen ezaugarri eta eraldaketa orokorrak.	76
Feminismoa zutabe nagusia. Emakumeen Etxeak	78
Migratzaileen aldeko eta arrazismoaren kontrako elkarteak	81
Euskararen erabileraren bultzada eta hizkuntza-politikak.	82
Esperientzia ekoalternatiboen irakaspenak	83
Herri-mugimenduen arteko aliantzak eta eztabaidak/gatazkak	85
Aniztasuna, errealitatea eta lanketa. Aniztasunaren mugak	87
Sareen mapek ikusarazi dutena	89
Mugimenduak eta erakundeen arteko harremanak eta talkak	90
Herritartasunaren (ber)konfigurazioak	93
10.- Bibliografia	97

1. Ikerketaren aurkezpena

Aniztasuna gure gizarteetako errealitate ukaezina eta aberasgarria da. Modu berean, ugariak dira herrialde guztietan dauden jatorri, genero, hizkuntza, klase, ingurune-justizia edo bestelako aldagaiekin loturiko bereizkeriak eta bazterketa soziala. Horien kontra neurri eraginkorrak behar dira eta nahitaezkoa da berariazko ikerkuntza garatzea.

Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik izenburua izan duen ikerketa honen arreta-gunea Euskal Herriko eta, bereziki, Gipuzkoako gizarte-mugimenduen eta herri eragileen¹ artean bultzatzen ari diren ekintzak izan dira, sinetsirik baikaude informazio hori komunitateak nola ehuntzen diren jakiteko nahitaezkoa dela. Era berean, uste dugu euskal gizartea, dituen ezaugarriengatik, leku aproposa dela hau bezalako ikerketak egiteko; besteak beste, honako ezaugarri hauetaz ari gara: hainbat gatazka eta herri mugimendu aktibo; kanpora zein barrura, bi norabideetako migrazioa; gizarte-mugimenduen eskarmentu handia (mugimendu feminista indartsu bat, esate baterako); eta euskararen inguruko jarduerak. Izan ere, euskal gizartean dauden konplexutasunak eta gatazkek behartu gaituzte bizi dugun aniztasunari aurre egi-

¹ Lan honetan, 'gizarte-mugimendu' eta 'herri-mugimendu' terminoak sinonimotzat jo ditugu, ez dugu bereizketarik egin.

ten eta prozesu horretan, emakumeak, migratzaileak edo beste sektore batzuek ez dute subjektu pasibo gisara jarduten.

2018ko otsail-azaro bitartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak (*Etorkizuna eraikiz* programa) eta UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak duten hitzarmenaren baitan kokatzen den proiektu honetan², lanean aritu gara hogeita bat ikertzaile, UPV/EHUko lau ikertaldetako kideak: AFIT (Antropologia Feminista Ikerketa Taldea, HEFA-Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatekoa), eta NOR, EKOPOL eta PARTE-HARTUZ ikerketa taldeak (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak).

Ikerketaren helburu nagusia izan da, azken urteotan bizitzen ari garen krisi eta gizarte-aldaketa testuinguruan, talde, eragile eta herri-mugimenduen artean garatzen ari diren elkarguneak eta prozesu komunak aztertzea. Era berean, analizatu dugu nola, ibilbide horietan, gizarte-bereizkeria ezberdinak jasaten ari diren norbanakoen eta kolektiboen artean elkartasun- eta elkarrekotasun-forma material eta sinboliko berriak gauzatzen ari diren. Bereziki sakondu nahi izan dugu ekimen horietan sortzen diren aliantzetan, aldarrikapenetan, salaketetan eta kultur sorkuntzan; izan ere, horien eskutik elkartasun eta herritartasun mota berriak eratzen ari baitira.

Hipotesi batetik abiatutako lana da hau: testuinguru honean, eta oztopoak oztopo, eragileen artean sortzen diren sareetan eta elkarlanean, egitasmo, elkartasun eta herritartasun modu berriak gauzatzen ari dira, maila materialean zein sinbolikoan. Proiektuak bost ardatz nagusi ditu: (1) kultur eta gizarte-aniztasuna (migrazioa); (2) genero-berdintasuna; (3) hizkuntzen aldeko ekimenak eta, bereziki, euskararen gaineko pertzepzioa edota

² Ikerketa hau Espainiako MINECO-Ministerio de Economía, Industria y Competitividad delakoak, 2017ko deialdian, onartu digun proiektu nagusi baten parte da. Proiektu horren izenburua da: “Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborativos de participación política y redefinición de la ciudadanía” (CSO2017-82903-R; 2018-2021), eta Euskal Herri osoan garatuko da. Ikerketaren koordinatzaileak Mari Luz Esteban Galarza eta Josu Amezaga Albizu dira.

erabilera; (4) jasagarritasuna eta ingurune-justizia; eta (5) herriartasunaren konfigurazioak.

Proiektuaren ezaugarriak eta baldintzak aintzat hartuz, eta hainbat faktoreren arabera³, esanguratsuak diren lau udalerritan kokatu dugu ikerketa: Arrasate, Donostia, Errenteria eta Hernani. Halaber, herri horietatik harago, Gipuzkoa osoa aintzat hartu dugu, oro har, baina, bereziki, eragileen artean mantentzen diren sareen mapak osatzerakoan⁴ edota sustatzen ari diren hainbat esperientzia ekoalternatibo aztertzerakoan.

Aztergai izan ditugun herri eta arloetan burutzen ari diren ekimenei dagokienez, beren artean zubi eta elkarlan gehien mantentzen duten eragileei begiratzea lehenetsi dugu.

Horien artean, feminismoak bultzaturiko Emakumeen Etxeen fenomenoaren azterketari garrantzi berezia eman diogu. Ikertutako lau eremuetan badago horrela identifikaturiko gune fisiko bat (Arrasate, Donostia eta Errenteriaren kasuan, martxan, eta Hernanin, sortzeko prozesua oso aurreratua)⁵. Hiriburuan, DEE-Donostiako Emakumeen Etxearen esperientziaren zabaltasuna eta konplexutasuna aintzat harturik, bere baitan gertatzen diren harremanen azterketara mugatu dugu gure begirada. Eta Errenteriako eta Hernaniko herri-mugimenduen elkarlanaren analisiaren erdigunean, aldiz, Emakumeen Etxearen sorrera-prozesuan jarri dugu arreta eta horrekin lotutako ekintza eta dinamikei zein horien inguruan daudenei so egin diegu⁶. Arrasaten, berriz, bai bertako feminismoa bai euskara-

³ Lau herri horiek ezaugarritzen dituzten hiru faktore hauexek izango lirateke: bertako gizarte-mugimenduek (feminismoak, arrazakeriaren kontrakoak, ekologistak eta euskararen aldekoak) tradizio eta presentzia handia dute; beste aldetik, mugimendu horien eta tokiko erakundeen arteko harremanen bidez ekimen interesgarriak abiatzen ari dira; azkenik, nabarmendu daiteke herri horietan ere Espainiako estatuko zein estatutik kanpoko migrazioak daukan garrantzia.

⁴ Eragileen arteko harremanak Gipuzkoatik kanpo ere zabaltzen dira.

⁵ Arrasatekoari Emakume Txokoa esaten zaio, Donostiakoari Donostiako Emakumeen Etxea eta Errenteriakoari Emakumeen Etxea. Hernanikoak, momentuz, Kulturarteko Plaza Feminista izena dauka.

⁶ Errenteriako Emakumeen Etxea 2019ko martxoaren 23an inauguratu zen.

ren aldeko mugimenduak, biak ala biak, dira gure azterketaren bi ardatz nagusiak.

Mugimendu Feministak betidanik azpimarratu du emakumeentzako eta berdintasuna jorratzeko espazio propioak edukitzearen beharra, emakumeen arteko harremana eta elkarteak, proiektuak eta bestelako jarduerak bultzatzeko (Esteban, 2017). Gaur egun, Euskal Herrian hedatuta dauden Emakumeen Etxeek⁷ politikarako, aholkularitzarako⁸ eta formakuntzarako gune esanguratsuak dira. Antolatzen diren jardueren artean nabarmentzekoak dira jabekuntza- edo jabetze-eskoletan⁹ barne-biltzen direnak¹⁰.

Baina ikerketa honetan, Emakumeen Etxeek gain, arrazismoaren kontra eta migratzaileen alde¹¹, euskararen erabilera

⁷ Gaur egun hamaika etxe daude martxan: Arrasateko Emakume Txokoa, Azpeitiko Emakumeen Txokoa, Basauriko Marienea, Donostiako Emakumeen Etxea, Durangoko Andragunea, Eibarko Andretxea, Ermuko Emakumeen Topalekua (2003an sortu zen lehena), Errenteriako Emakumeen Etxea, Gasteizko Sorginenea, Iruñeko Emakumeen Etxea, eta Ondarroako Etxelila. Baina zenbait hiri/herritan topa daitezke emakumeen etxeak sortzeko prozesuak, besteak beste, Bilbon, Hernanin edo Tolosan.

⁸ Etxe hauetan egon ohi diren zerbitzuen artean hauexek nabarmendu daitezke: genero- eta sexu-heziketa, eskubideen gaineko informazioa, aholkularitza juridikoa edo babes soziala eta psikologikoa.

⁹ Jabekuntza, jabetza edo, gaur egun, euskaraz lehenesten den ahalduntze kontzeptua "XX. mendeko 60ko hamarraldian hasi zen erabiltzen, Ameriketako Estatu Batuetan eta Latinoamerikan, afroamerikarren eta pobreen eskubideen aldeko borroketan. Baina 70eko hamarraldian hedatu eta sendotu zen, emakume-mugimenduen eskutik. Kontzeptu horrek aurrez kontzientziazioari eta partaidetza sozio-politikoari buruz eman ohi ziren definizioak aberastu ditu, eta horietatik harago jo du. Izan ere, eskubide eta testuinguru politiko eta kulturaleri erreferentzia egiteaz gainera, aldaketa zailtzen duten prozesu psikologiko, politiko, kognitibo eta ekonomikoak integratzeko xedea du (de León 1999:191). Ikus, halaber, Denman, Aranda eta Cornejo (1999)" (Esteban, 2017:47).

¹⁰ Euskal Herriko lehen jabekuntza-eskolak Bizkaian sortu ziren 2003an, zenbait udaletan berdintasun arloan lanean ari diren eta mugimendu feministarekin zuzeneko lotura duten berdintasun-teknikarien ekimenez. Eskola horiek modu koordinatuan dihardute; gogoeta, prestakuntza eta topaketarako guneak dira; eta haiek bideratutako jardueretan ehunka emakumek parte hartzen dute urtean. Hain zuzen ere, eskolen helburua da emakumeen partaidetza politiko eta soziala sustatzea, politika publikoetan eragiteko modua izan dezaten (Esteban, 2017:47).

Ikus: https://eu.wikipedia.org/wiki/Emakumeen_ahalduntzerako_Eskolak_Euskal_Autonomia_Erkidegoko_udalerrietan

¹¹ Behatu ditugun elkarte eta ekimenen artean Hernanin kokatua, baina Gipuz-

bultzatzeko¹² edo ekologia arloan¹³ dauden hainbat ekimen eta plataforma ere izan ditugu aztergai.

Estrategia metodologikoa

Ikerlana modu egokian aurrera eramateko, lantaldea sei azpitaldetan antolatu da (Arrasate, Donostia, Erreterria, Hernani, Sozioekologia eta Herritartasuna). Horretaz gain, martxotik aurrera, denbora-tarte ezberdinetan bada ere, masterreko bi ikasle eta graduako bat aritu dira gurekin lanean hitzarmen ezberdinen bidez: Maider Iturbe Mujika, Uxue Ruiz Romo eta Maider Galardi F. Agirre.

Ikerketan erabili dugun metodologia kualitatiboa eta etnografikoa da, eta teknika nagusiak hauexek dira: (1) sakoneko elkarriketak (banakakoak eta taldekoak) eta eztabaida-taldeak; (2) behaketa parte-hartzailea; eta (3) iturri dokumentalen azterketa (tokiko ikerketak eta agerkariak, eskuorriak, etab.).

Teknika horiek aplikatuz, hauexek dira, zehazki, egin ditugun lanak:

- 59 elkarriketa (banakakoak eta taldekoak) eta eztabaida-talde bat. Elkarriketaturiko pertsona motak hauexek izan dira: euskararen arlokoak, migratzaileen eskubideen aldeko elkarteetakoak, herrietan eta Emakumeen Etxeen inguruan dauden feministak eta berdintasun-teknikariak, ekologiarekin zerikusia duten ekimenetako partaideak, eta herrietako

koako SOS Arrazakeriarekin elkarlanean dagoen AMHER-Hernaniko Elkarte Multikulturalaren lana nabarmendu behar dugu, non jatorri ezberdinetako migratzaileak batzen diren.

¹² Arlo honetan, Arrasaten eta Hernanin, urteetan lanean egon diren elkarteen artean azpimarratu beharko genituzke: AED (Arrasate) edo Dobera edo Euskara ari du kultur-elkarte (Hernani).

¹³ Arestian esan dugunez, ekologiaren kasuan ez gara soilik zentratu lau herri horietako esperientzietan, baizik eta Gipuzkoa osoko eragileak elkarren artean burutzen ari diren jardueri ere begiratu diegu.

erakundeetako ordezkariak (zinegotziak). Elkarriketak egiteko alde zuretik prestaturiko gidoia erabili dugu.

- 55 behaketa-saio (91 ordu, guztira), gure proiektua garatu den lau udalerrietan eta proiektuaren ardatzekin bat datozen hainbat gune edo ekimenetan: eragile ezberdinak batzen dituzten plataformen ekintzak, euskararen aldeko ekimenak, esperientzia ekoalternatiboak, Emakumeen Etxeak dinamikak edo haiek sortzeko prozesuak, ekintza feministak eta herri horietako bestelako jarduerak: jaiak, mahai-inguruak, eztabaidak, elkarretaratzeak, eta abar. Behaketa bakoitzari buruz fitxa bat bete dugu, alde zuretik prestaturiko gidoi bati jarraituz.
- Sareen mapak osatu ahal izateko, 76 galdetegi osatu ditugu guztira. Atal honen diseinuan eta analisisian, Bartzelonako Unibertsitat Autònoma delakoan sareen ikerketaren metodologian adituak diren bi antropologoren aholkularitza baliatu dugu: José Luis Molina González eta Beatriz Patrakak Dibil-dox. Zehazki, bost mapa egin ditugu, herri bakoitzeko bat eta beste bat herri guztien informazioa elkarlotzen duena.
- Beste aldetik, Inge Mendioroz artistari sareen mapen emaitzen irudikapen artistikoa egitea eta horien gainean objektu artistiko bat diseinatzea eskatu diogu. Zehazki, mapa horietan irudikatzen diren zubiak eta elkarlana adierazteko *Erreminta-kaxa* bat diseinatu eta gauzatu du, betiere herri bakoitzari egokituia.

Behin informazio guztia bilduta, jasotako emaitzak antolatu eta aztertu ahal izateko, hainbat kategoria nagusi eta azpikategoria zehaztu ditugu, azpibalde bakoitzaren lana aztertzeko baliatuak izan direnak.

Estrategia metodologikoari dagokionez azken ohar bat egin behar dugu: taxuz diseinatu dugun azterketa modu egokian aurrera eramanez ahal izateko, ezin garrantzitsuagoa izan da lantaldean parte hartu dugunok ikerketako herri, gai edo eremuekiko dugun eskarmentua eta hurbiltasuna, bai herri horietan bizi edota elkarte/jarduera batean parte hartzen dugulako, bai aztertutako ekimenen bateko edo besteko kideak garelako edo izan garelako. Hau da, nahiz eta ikerketarako teknikak modu sakonean eta

zorrotzean zehaztu eta aplikatu ditugun, proiektuaren diseinuan eta analisisan gure ezagutza propioa ere profitatu dugu, hots, askotarikoa eta anizkoitza den ezagutza. Dagoeneko aipatu dugunez, talde handia izateaz gain gutariko asko Gipuzkoako eta azterturi-ko herrietako gizarte-dinamiketan engaiatuta gaude.

Txosten honen egiturari dagokionez, bederatzi ataletan antolatuta dago, eta gero, bibliografia eta eranskinak ere gehitu ditugu:

- Lehen atal honetan (“Ikerketaren aurkezpena”), ikerketaren aurkezpen orokorra egiten ari gara, estrategia metodologikoa barne.
- Bigarren atalean (“Testuingurua eta kokapen teoriko gisa”), gure lanaren testuingurua, oinarri teorikoak eta erabilitako erreferentzia bibliografiko nagusiak laburbilduko dira.
- Ondoren datozen sei ataletan, lau udalerrietan (Arrasate, Donostia, Erreenteria eta Hernani), sozioekologiaren arloan, eta herritartasunari dagokionez ateratako emaitza nagusiak laburbilduko dira.
- Bukatzeko, eta bibliografiari dagokion parte baina lehen, “Hainbat ondorio” atalean, azken ondorio eta gogoeten bidez, lana biribiltzen saiatuko gara.

2. Testuingurua eta kokapen teorikoa

Dagoeneko aipatu dugunez, gero eta anizkoitzagoa den gure gizarte honetan, mugimendu sozialak funtsezko aktoreak dira komunitateen ehungintzan. Gizarte-mugimendu horien artean (feministak, arrazakeriaren aurkakoak, ekologistak, kulturartekoak, euskararen aldekoak...) gorpuzten diren elkarlan eta aliantzak aztertzen dira, eta hori guztia Gipuzkoa lan-eremu modura hartuta.

Gipuzkoa askotariko lurraldea da, bertan diharduten herri-ekimenen ugaritasunagatik, bertako herritarren ezaugarrien-gatik, eta abar. Aniztasun horren artean, lan honetan garrantzi berezia hartu dute euskarak nahiz biztanleen jatorriak. Euskarari dagokionez, Gipuzkoan 16 urtetik gorako herritarren %50,6 da elebiduna, beste %17,3 elebidun hartzailea (hots, hizkuntza ondo ulertzeko gai), eta bestelako %32,1 erdalduna, 2016 datuak biltzen dituen VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP, 2016). Euskal Herriko herrialderik elebidunena da, beraz; eta Gipuzkoako elebidunen batezbestekoa Euskal Herriko (%28,4) edo EAeko (%33,9) elebidunena baino dezente altuagoa da. Ezagutzarekin batera, erabile-ra da kontuan hartzeko beste datuetako bat. Hizkuntzen Erabile-raren VII. Kale Neurketak erakusten duenez, 2016an euskararen presentzia Gipuzkoako kaleetako elkarrizketetan %31,1ekoa zen; Euskal Herriko erabilera, berriz, %12,6 zen (Soziolinguisti-

ka Klusterra, 2017). Azpimarratzekoa da gazteenek ere gehiago darabiltela euskara Gipuzkoan (%45,7 haurren artean eta %34,1 gazteen artean). Baina, nola ez, euskara eta gaztelaniaz gain, Gipuzkoan beste hizkuntza batzuk ere hitz egiten dira, mota honetako ikerlanek erakusten dutenez.

Immigrazioari dagokionez, 1980ko hamarkadara arte, gehienbat, Gipuzkoara Espainiako estatuko beste toki batzuetatik etorritako migratzaile ugari iritsi baziren ere, behin 2000ko hamarkadan sartuta, beste jatorri batzuetako immigrazioa heldu da lurraldera. Horrela, 2019an, Gipuzkoako herritarren %10,1 migrazio berri horren kideak dira (Ikuspegi, 2019), eta gehienek ez dute herritartasun formalik –espainiarrik– onartuta. 2000. urtean, ordea, kopurua %1,4koa zen. Beraz, gaur egun, migratzaileen kopuruak Europako mendebaldeko herrialdeen batezbestekoak baino baxuagoak dira, baina kontuan hartzekoa da Gipuzkoan immigrazioa fenomeno berriagoa eta hazkunde azkarrekoa gertatzen ari dela, Espainiako estatuko eta Europako hegoaldeko herrialdeen migrazio-joerei jarraiki. Aldi berean, migrazioen errealitatea hori baino zabalagoa dela (herritartasun formala eskuratu dutenak, haien ondorengoak, eta abar) kontuan izan behar da.

Lehenago ere esan dugunez, aniztasunak ezaugarritutako lurralde honetan, Gipuzkoan, herri-mugimendu ugariren artean gertatutako loturak eta aliantzak hartu ditugu aztergai, funtsezko garrantzia dutelako aldaketa soziala, elkartasuna, parte-hartze politikoa, identitatea eta herritartasuna bezalako fenomenoetan.

Gure gizarteak aldaketa-testuinguru batean murgildurik daude. Harreman sozialen desinstituzionalizazioaren eraginez, aurreko garaietako ordena sozialaren eta kohesio sozialaren ideiak zalantzan daude (Touraine, 2005). Duela gutxi arte, gizarte moderno sistema integratu moduan irudikatzen zen, ekoizpen modu zehatz baten eta nazio-estatu sendo baten inguruan artikulatua. Aurreko mendera arte, sistema sozialaren (kulturala nahiz instituzionala) eta norbanakoaren arteko koherentzia azpimarratzen zen, baina desinstituzionalizazio-prozesuak aldaketa sakonak eragin ditu ehun instituzionalean eta kulturean. Sozializazio-prozesuen bidez belaunaldi berriei transmititzen zitzaizkien balioek eta arauak garrantzia galdu dute. Arau eta balio horien izaera objektiboa ahuldu da, hau da, norbanakoek zalantzan jarri

dituzte; eta egunerokotasunean balio nahiz arau kontrajarrien artean jardun behar dute (Dubet, 2010). Euskal Herriaren kasuan, aztertzeke dago desinstituzionalizazio orokor horrek bertan duen eragina, eta tokiko erakunde nahiz gizarte mugimenduak prozesu horren galga izan ote diren. Dena den, eta maila orokorrean jarraituz, krisi-egoerak ezaugarritzen du egungo gizartea, krisia gertatzen da joera demografikoak aldatzen direlako (migrazio-mugimenduen areagotzea barne), edo orain arteko beste joera batzuk eutsiezinak direlako ekologiarren ikuspuntutik, edo erreprodukzio soziala eta zaintzarako joerak ezbaian ipini direlako (Sagastizabal, 2017: 55-56). Beste modu batera jokatzeko tokatzen da orain. Ingurumenaren krisiari loturik, adibidez, ekintza kolektiboa aldarrikatzen da. Izan ere, krisi sozial eta ekologikoak ekintza zein pentsamendu komunitaristei bide eman diete (desazkundera eta ingurumen-justizia, hirigintza-eredu berriak, estraktibismoaren aurkakoak, denbora-bankuak, ekonomia sozialeko enpresak, kontsumo taldeak...), naturaren eta gizartearen arteko hartu-emanak ulertzeko modu berrien erakusgarri direnak (Latouche, 2011; Prats, Herrero eta Torrego, 2016).

Ekintza kolektiboarekin batera, elkarlanak eta elkartasunak garrantzi handia hartu dute krisi egoera honetan. Zaurgarritasun-egoerari aurre egiteko, gizarte talde eta eragile zenbaitek elkarrekikotasunean eta elkartasunean oinarritutako ekimenak jarri dituzte abian. Elkarrekikotasuna ekitatea helburu duen transferentzia modu bezala defini daiteke (Terradas, 2002), gizarte talde batek antolatzen duena, bai interes materialagatik eta baita atzean ezkuta daitekeen behar moralaren eraginez ere (Narotzky eta Moreno, 2000). Pierpaolo Donatik (1999) azpimarratu duen bezala, elkartasuna kulturartekotasunerako/kultura-aniztasunerako oinarritzko ezaugarria da, desberdintasunak errespetatzeaz gain berauek aitortzeko beharrezkoa delako, horrela elkarri lagundu eta harreman sendoak sortu ahal izateko. Hortik abiatuz, gizarte-mugimenduen arteko elkarlana aztertzeak garrantzia bereganatzen du.

Krisi-egoerak alor politikoari ere eragin dio. Demokrazia instituzionalaren egitekoaren inguruko ezkortasuna orokortu da gizartean (Subirats, 2006), eta horri aurre egin nahi dioten hainbat erantzun kolektibo sortu dira, besteak beste demokrazia parte-har-

tzailearen aldarrikapena (Santos, 2004). Politika birpentsatzeko beharrak herritarren parte-hartze ekimenak ugaritu ditu azken al-dian (Martínez Palacios, 2017); eta ekintza politikoa nahiz subjektu politikoa bera ulertzerakoan eraldaketak gertatzen ari dira, eredu ireki eta lausoak (zurrun eta koherenteen ordez) nabarmenduz (Es-teban, 2015). Testuinguru honetan, partaidetza politikorako modu berriek garrantzia hartu dute eta haien praktketan eraldaketak gertatzen ari dira (Luxan et al., 2014; Esteban, 2015). Besteak bes-te, herritarren mugimendu ugariaren (feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren aurkakoa, euskalgintza, eta abar) arteko aliantzak eta gerturatzeak ohikoak dira, eta aniztasunaren dimentsioak in-darra hartzen du. Betiere kontuan hartuta partaidetza politikoa bera generoa, klasea, jatorria, hizkuntza, adina edota beste aldagai batzuek gurutzatzen eta baldintzatzen dutela (Martínez Palacios, 2017).

Eragile sozialen arteko harremanak, elkarrekintzak edota aliantzak aztertzen dira ikerlan honetan. Finean, helburu desberdi-nak izan ditzaketen herri-mugimenduen arteko elkarlanaz aritzen gara, eta elkarlan horretan sortu diren prozesuez eta ondorioez. Richard Margerumek (2007) zehazten duen bezala, praktika kola-boratzailleak ulertzeko kontuan hartu behar da arazo konplexuak konpontzeko pertsonak adostasun bat eraikitzen dutela. Giza koo-perazioa ulertzeko teoriak askotarikoak dira; batzuek altruismoa azpimarratzen duten bitartean, beste batzuek kolaborazioa edo elkarrekiko inter-dependentsia lehenesten dute (Tomasello et al. 2012); izan ere, kolaboratzerakoan onurak askoz handiagoak dira.

Herri-mugimendu hauen praktikek, hortaz, herritartasunean aldaketak eragiteaz gain, identitatean ere ondorioak dituzte. Manuel Castellsek (1998) azpimarratzen duen bezala, identitatea uler daiteke aktore sozialek beren ekintzei zentzua emateko aurrera era-maten duten prozesu modura. Egitura eta instituzio handiek norta-sun-emale gisa garrantzia galtzen duten krisi testuinguru batean, gainera, norbanakoak zentraltasuna irabazten du eta, ziurtasunak eraiki nahian, pertsonak identitatearen (berr)eraikuntza-prozesue-tan murgiltzen dira (Giddens, 1991; Melucci, 2002). *Modernitate li-kido* kontzeptua garai honen erakusgarri litzateke (Bauman, 2002). Baina horrek ez gaitu eraman behar identitate sendoak identitate likido eta lausoagoen mesedetan desagertzen direla pentsatzera.

Aitzitik, Stuart Hall-ek eta haren kolaboratzaileek (1995) gogorazi bezala, identitate egonkor deiturikoak ez dira inoiz uste bezain bateratuak izan; esaterako, klase sozialak beti zeharkatu izan du nazio identitatea bezalako identitate sendoa.

Esaten ari garenez, herritartasuna birdefinitzen eta zabaltzen ari den kontzeptua dugu, herritartasun formal edo administratibotik harago. Europako testuinguruan, eta ikuspegi formal batetik, herritartasuna eta nazionalitatea parekatu ohi dira; eta, hori dela eta, herritartasunerako eskaerak (estatuetatik egin ohi direnak) nazio-ezaugarri zehatzetan oinarritu ohi dira (Triandafyllidou, 2001). Nolabait, praktikan, estatuek herritartasuna eta naziotasuna parekatu ohi dituzte, edo horretan saiatzen dira; izan ere, historian zehar herritartasunak zedarritzen zuen *demosak*, edo komunitate politikoak, homogeneoa izan behar zuela uste izan da.

Baina Sandra Gil Araujok (2010) gogorarazten duen bezala, herritartasunaren eta nazionalitatearen arteko hartu-eman hori migrazioek problematizatzen dute, beste hainbat errealitate sozialekin batera. Gure testuinguruan, zentzu horretan, aniztasun horri naziotasunaren inguruko eztabaida gehitu behar zaio: nazio-estatuan nagusi ez den bestelako nazio- edo herri-identitate bat aldarrikatzen delako, eta baita nazio-estatu horrekin bat egin ez duten proposamen politikoak sozialki oso garrantzitsuak direlako ere. Izan ere, estaturik gabeko nazionalismoak, beste herritartasun bat nahiz beste naziotasun bat aldarrikatzerakoan, herritartasunaren afera are konplexuago bilakatzen du.

Herritartasunak berarekin daramatza, beraz, dimentsio formala (onarpen instituzionalari lotuagoa) zein dimentsio sozio-kulturala (identitateei lotuagoa). Gure gizarteen aniztasunaren testuinguruan, migrazioei, nazio-identitateei, generoari, etnizitateari, eta abarri loturik, herritartasunaren dimentsio sozial eta kultural horren ezaugarritzean aldaketak gertatzen ari dira.

Testuinguru honetan, esku artean daukazun lanean, beraz, herritartasunaren definizioan, berrikuntzan eta aldaketetan jarri da arreta, eta horretarako herri-mugimenduen hainbat jardueraremu eta espazio aztertu dira.

3. Arrasaten komunitatea(k) ehunduz

*Ainara Santamaria Barinagarrementeria,
Ion Andoni del Amo Castro eta Edorta Arana Arrieta*

Arrasate Debagoiena eskualdean (Gipuzkoa) dagoen 21.977 biztanleko herria da¹⁴. Han bizi diren herritarrak, batik bat, bertan jaioak eta Euskal Herriko beste lurralde batzuetatik edota Espainiako estatutik etorritakoak dira¹⁵. Baina, Erdialdeko Amerikako eta Hego Amerikako pertsonen etorrera ere nabarmena izan da herrian. Oro har, azken hamarkadetan biztanleriaren beheranzko joera txiki bat nagusitu da: doazenak datozenak baino gehiago dira. Ekonomiari dagokionez, bigarren eta hirugarren sektoreari lotutako jarduerak dira nagusi, eta ezin aipatu gabe utzi kooperatiben mugimendua, zeinak nazioartean antolaketa-eredu eta eredu sozioekonomiko horren erreferentzia-gune bilakatzera eramán duen Arrasate.

Baina ekonomikoa ez ezik, gizarte-ehundura sendoa eta aberatsa daukan udalerría ere bada. Azken hamarkadetako ibilbideari begirada bat eginez gero, ikus daiteke ugariak izan direla jendearen gogoak eta beharrak gauzatzeko sortu diren elkarteak

¹⁴ www.arrasate.eus/eu/arrasate-herria

¹⁵ <http://udal.aztiker.com/arrasate/eu/node/417>

eta gizarte-mugimenduak, eta modu askotakoak horiek erabili dituzten antolaketa eta parte-hartze moduak. Bereziki euskararen eta feminismoaren alorretan, baina migrazioaren, ekologiaren edo gizarte-berrikuntzaren inguruan ere eratu dira elkarte eta gizarte-mugimenduak.

Atal honetan, beraz, Arrasateko herri-mugimenduen artean (feministak, arrazakeriaren aurkakoak, ekologistak, kulturartekoak, euskararen aldekoak...) bultzatzen ari diren ekintzetan jarri dugu arreta, eta horretarako, hainbat jarduera-eremu eta espazio aztertu dira. Hona hemen 2018ko otsaila eta azaroa bitartean burutu ditugun jardunak: sareen mapak osatu ahal izateko 20 galdetegi, 22 pertsonaren iritzia jasotzeko balio izan dituzten 10 elkarrizketa sakon eta 1,5 orduko iraupena izan duen behaketa-saio bakarra. Analizatutako guztiak proiektuaren ardatzekin bat datozen norbanakoak, guneak edo ekimenak izan dira.

Testu honetan, lehendabizi, herri-mugimenduen barne-bizitzaz arituko gara, ondoren kolektibo horiek dituzten kanpo-harremanei erreparatzeko. Hurrengo puntu batean, aniztasunaren kudeaketarako garatzen dituzten planteamenduak eta estrategiak ezagutuko ditugu, bereziki, jatorri eta kultura ezberdinei lotuta. Azkenik, ondorioei helduko diegu.

Herri-mugimenduen barne-funtzionamenduaz

Arrasateko elkarte eta gizarte-mugimendu asko, denak ez bada, bi geruzatan antolatzen direla ikusi dugu. Erdigunean, muinean, talde motorra dago, zeina jende kopuru txiki batez osatzen den eta talde handiagoaren dinamizazio-lanaz arduratzen den. Muin honen bueltan, modu lausoagoan antolatzen den pertsona geruza zabalago bat dago. Tipularen antzeko osaera dute bi maila horiek: bakoitzak funtzio eta partaidetza-modu definituak erakusten ditu, baina bien arteko loturak eta hartu-emanak egon daitezten ahalegintzen dira mugimenduko kideak.

Mugimenduak pertsonak osatzen dituzte eta esan genezake pertsona horien deskribatzaile nagusia aktibotasuna dela; eragilearen dinamiketan ez ezik, bestelako eremu (lantoki, hezkun-

tza...) edo talde eta gizarte-mugimenduetan ere inplikatzeko dira. Zentzu horretan, eragile bakoitza osatzen duten norbanakoen garrantzia azpimarratuko genuke, bai taldeen funtzionamendua osasuntsu mantentzeko baina baita Arrasateko herri-mugimenduen sarea osatzerako ere. Eta ideia hori mugimenduetako ki-deek ere garbi daukate: elkarrekin ezberdinen baitan biltzen diren pertsonen arteko harremanek sekulako indarra daukatela. Indar hori, gainera, “militantzia” bikoitza edo hirukoitza daukaten pertsonen esker areagotzen da, hainbat elkarrekin berri izateko eta horien arteko loturak ehuntzeko balio izaten baitu horrek. Beraz, erlazio-egiturarik eduki ez arren, maila pertsonalekoek zubi-lan hori betetzen dute zenbaitetan.

Kideen parte-hartzeko eta engaiatzeko moduei dagokienez, lehengo eta gaurko garaien artean ezberdintasunak sumatzen dituzte elkarriketatuek. Ekintzaitasuna eta jardunaren iraunkortasuna dira gehien aipatzen dituzten aldagaiak. Ekitatea, gauzak egitea, beti egon da hainbat gizarte-mugimenduen oinarrian, aspaldikoengan eta, Arrasaten ikusi dugunaren arabera, bereziki mugimendu berriengan. Pottogorriak neska gazte transfeministen taldeak edo pentsiodunen elkarrekin, esaterako, biak ala biak ibilbide berriko eragileak, indar handia jartzen dute ekintzaitasunaren ideian. Zentzu horretan, lehenagotik datozen herri-mugimenduek, elkarrekin plangintza eza arazo gisa ikusten badute ere, dinamika horretan gehiagotan aritzen diren mugimendu berriagoek ez dute beste modu batean funtzionatzeko beharrik ikusten. Ondorioz, esan genezake paradigma-aldaketa baten aurrean aurkitzen garela antolatze-eredu “klasikoaren” —zeinak denbora-aurreikuspen luzearekin jokatzen duen eta kutsu ideologiko handiko dinamikak dituen— eta “berriagoaren” artean, planifikazio gutxi eta epe laburreko ekimenenak nagusitzen direnekoan.

Aipatu dugun tipularen erako antolatze-ereduan, zenbait eragilek aitortu digute ekintzak bilakatzen direla bi geruzen lotura; ekintzek motor funtzioa betetzen dutela jende multzo txikikoek inguruan daudenen inplikazioa lortzerakoan, alegia.

Hala ere, badira ahotsak etenik gabeko ekintza-katean jardutearen albo-kalteak aipatzen dituztenak ere. Aipagarriena, eragile baten barneko eta kanpoko jardunaren arteko oreka zaildu

egiten dela, barnekoaren kaltetan. Askotan, gainera, ekintza horiek kanpoko agendak markatzen ditu eta eragileak nabari dute momentuan momentuko beharrei erantzun behar izateak denbora planifikatzeko eta neurtzeko zailtasunak ekartzen dizkiela.

Bestelakoa izaten da egoera, egitura sendoagoa eta, nolabait esanda, trinkotuagoa duten elkarte eta gizarte-mugimenduekin. Izan mota batekoak ala bestekoak, gizarte-mugimendu horiek erakunde publikoekin harremana daukatenean, planifikazioa eta ekintzen periodizazioa askoz ere luzeagoa izaten da, epe laburreko edo ertainekoan aurretik.

Aztertutakoaren arabera, kezka iraunkorra da mugimenduen gehiengoarentzat azalekoa den inplikazio-mailatik harago nola engeiatu jendea. Kide berriak, eta bereziki gazteak, erakarri nahia konstante bat da hainbat gizarte-mugimendutan. Horrek erakutsi lezake gizarte-mugimenduen zahartze bat gertatzen ari dela. Gizartearen, oro har, eta herritarren inplikazio-maila aldatu egin da, eta hori nabaria da hainbat planotan. Beste batzuen artean, transmisioan, belaunaldien arteko lotura eta ezagutzari dagokionez.

Eragileek identifikatzen dituzten tentsio-puntuei dagokienez, marko nazionalari buruzko eztabaidatik eratorritakoak dira batzuk eta soilik emakumezkoentzako espazioak sortzeari lotutakoak beste batzuk. “Betiko” moduen eta berrien arteko talkekin erlazionatutakoak ere aipa dituzte elkarrizketa batzuetan, eta elkarteetan barruan modu boluntarioan lan egiten dutenen eta liberatuen artekoak ere bai.

Tentsio-puntu horietatik sortutako gatazkak ekiditeari edota gainditzeari begira, Arrasateko gizarte-mugimenduetako kideek behin baino gehiagotan azaldu digute komunean dituzten elementuen kudeaketa zein garrantzitsua den. Gutxieneko adostasunen inguruan eraikitzearen balioa. Minimo komun hori oinarritzakoa da aurrera egiteko.

Hala eta guztiz, aipatu behar dugu helburutzat duten herri-mailako aktibazioa edo herrigintzarekin aitortzen duten motibazioak gain hartzen diela bidean sortutako kezka eta gabezia guztiei. Guztiek azpimarratzen dute elkarteetan barne-bizitzaren egunerokoan dagoen giro ona.

Kanpo-harremanak

Herri-mugimenduen arteko erlazioak, besteak beste, elementu gakoak dira horien ezaugarriak definitzeko. Hartu-emanetan, herri-mugimenduek beren helburuak lortzeko aliantzak bilatzen dituzte eta horrela haien helburuak lortu. Baina harremanen bitartez, herri-mugimenduek beren izaera transmititu eta (ber)definitu ere egin dute, alegia, aldatu egiten dira.

Kanpo-harremani dagokionez, bi eremu ezberdindu ditugu: herri-mugimenduek erakundeekin dituztenak eta herri-mugimenduek elkarren artean dituztenak. Lehenengoari dagokionez, herri-mugimenduek gehienetan erakundeen aurretik joaten direla ikusi dugu, Arrasateko kasuan horrela gertatu dela baieztatu dute bederen, bai euskararen aldeko dinamiketan eta baita etorkinen harrera ematen ere. Adierazgarria da, esaterako, AED elkarteak Arrasateko euskalgintzan jokatu duen paperari buruz hitz egiterakoan “bisionario” batzuk izan direla azaltzea.

Herri-mugimenduek sarritan kontra-botere izaera izaten dute, eta horrek, zenbait kasutan, erakundeekin dituzten harremanak eskastea edota ahultzea eragin du. Dena den, Arrasateko eragile zenbaitzuek esan digutenez, azken denboraldian gauzak hobeto daude elkarrekiko harreman horri dagokionez. Adibidez, zenbaiten harremanak estuak dira erakundeekin, batez ere proiektuetarako diru-laguntzak tartean daudenean, erakundeak finantzia-ziorako iturri nagusi direlako.

Bi eremuen arteko jarrerak hurbiltze aldera, garrantzitsutzat jotzen dute hitzarmengintza, edo hala aitortu digute behintzat euskararen aldeko mugimendutik. Era berean, teknikarien figura ere gakoa izan da. Arrasaten jaso ditugun iritzien arabera, teknikariekin harremana ona da, zenbait kasutan testigantza positiboak eta esker onekoak jaso ditugu, espresuki zerbitzu sozialen arduradunei eta berdintasuneko teknikariari zuzendutakoak.

Hala ere, ñabardura txiki bat gehitu dute puntu honetan, erakunde eta herri-mugimenduen arteko harremana sarritan “pertsonek arabera” izaten dela baieztatuz. Ondorioz, erakunde publikoan momentuan karguan dagoenaren soslaiari estuki lotzen zaio herri-mugimenduarekiko gertutasun-maila. Izan ere,

teknikariei buruz hitz egiterakoan ezaugarri profesionalak azpimarratzen dituzte, baina baita pertsonalak edo ideologikoak ere. Adibidez, feminista den ala ez.

Hala ere, erakundeei buruzko kritikak ere badira, eta iritzi ezkor gehienak erakundeen burokratizazioari lotutakoak dira, garai berrietara egokitzeko daukaten ezintasunarekin lotuta. Hala bada, burokratizatzeak ekarri duen “inpersonalizazioa” edo denboran asko luzatzen diren tramiteengatik momentuko arazoei erantzuteko “efikazia eza” nabarmenduko genituzke. Burokraziaz gain, batzuetan adostutako planak aurrera eramateko borondate politiko falta ere badagoela salatzen dute. Kritika horiek edota bestelako arrazoiak direla medio, erakundeekin harremana izatea ez da kolektibo guztietan gertatzen den zerbait; autofinantzatutako taldeek, adibidez, erakundeekin harreman minimoa daukate, ez dute horretarako interesik agertzen, eta gainera, esperientzia ezkorrak bizi izan dituztela argudiatzen dute.

Baina, bada salbuespenik. Izaera instituzionala izan arren, herri-mugimenduarekin sintonia mantentzen duen erakunde bat nabarmentzen da egin ditugun elkarrizketetan: Arrasateko Emakume Txokoa. Erreferente positiboa da herriko mugimendu feministarentzat, eta positiboki baloratzen dute horren prestutasuna eta irekitasuna mugimenduarekin lan egiteko orduan.

Kanpo-harremanen bigarren esparruan murgilduz, hau da, herri-mugimenduek elkarren artean dituzten harremanetan, oro har, elkarleen artean erlazio askorik ez dagoela onartzen da: komunikazio-bideen gabezia nabarmentzen dute, “bastante independenteak” direla. Ez dago elkarlanerako planteamendurik. Eta egotekotan, esparru bereko eragileekin izaten da gehienetan. Arestian aipatu bezala, harreman pertsonalek pisu handia hartuko dute kolektibo arteko harremanetan eta, batez ere, modu informalean bideratzen dira.

Zentzu honetan, harremanen esparruan ere mugimenduen barne-dinamiketan gertatzen ari den paradigma-aldaketa moduko bat nabaritu dugu: Euskal Herrian, aurreko hamarkadetan, izandako haustura lerroak ez dira hain gordin azaleratzen, eta, aldiz, harremanetarako desioa askotan agertzen da. Desioa esan

dugu, askotan nahia baino ez delako: praktikan, ikusi dugun bezala, harremanak ez baitira hainbeste zabaldu.

Aniztasuna, errealitatea izan nahi duen erronka

Arrasateko esparru ugartan dago aktibo herri-eragileren bat sektoreari lotutako lanketa egiten: feminista gazteak, pentsiodunak, euskara-elkarteak, gazteen aisialdikoak eta beste. Egunerokoa, bakoitzak eremu konkretu batean lan egiten duela ikusi dugu, baina, egiari zor, azken urteetan gehitu egin dira hainbat ardatz lantzen dituzten eragileak. Adibiderik argiena Ekin dugu, zeinak euskara, migrazioa eta feminismoa dituen lan-ardatz.

Gizarte- eta kultura-aniztasuna gure testuinguruen ezaugarri nagusietakoa izanik, herri-eragileek egitekoa aztertu ondoren, gehitu behar dugu aniztasuna mugimenduen lehengai eta lema ere badela. Etengabeko lanketa eskatzen duena: kolektibo edo proiektu baten nukleotik urrunago daudenengana heltzeak ahalegin bat eskatzen baitu. Mugak muga, herri-mugimenduak berariazko lanketa egiten saiatzen dira gai honi dagokionez, eta hori azpimarratzekoa da.

Aniztasunaren gainean modu orokor batean galdetzerakoan, kategoria batzuk beste batzuk baino gehiago nabarmentzen direla ikusi dugu. Bestela esanda, aniztasunari buruz pentsatzerakoan, herri-eragileak ezaugarri batzuei lotutako artikulazioaz mintzo direla batik bat. Arrasateren kasuan, nabarmena izan da etnienekin edo jatorri kulturalarekin lotzen dutela aniztasunaren gaia. Aldiz, bigarren maila batean gelditzen dira adina, hizkuntza, klasea eta sexualitatea; eta aniztasun funtzionala apenas agertzen den.

Aniztasunaz pentsatzerakoan ikuspegi multikulturalistan egiten den enfasiak bere arriskuak ere baditu, esaterako, izan daitezkeen hutsuneen ardura migratzaileen esku uztearena. Etorrinek badituzte berariazko oztopoak modu iraunkorrean antolatuta egon ahal izateko: sarri ez dute leku berean denbora luzean irauten; lan-baldintzengatik, eguna eta denbora librea era ezberdinean antolatzea behartuta egoten dira; eta gainera, fami-

lia-sareen faltagatik, umeen zaintza partekatzeke arazo handiak izan ohi dituzte.

Etorquinek beren elkarte propioak dituzte, eta Arrasateko beste eragile batzuetan parte hartu baino lehen, beren kulturari lotutako elkarteak izaten dira lehenengo antolatze-espazioak. Emakume arabiarrek eta nikaraguarrak aipatuko ditugu, aitzindariak izan direlako zentzu horretan.

Ondorioz, migratzaileen parte-hartzearen muga ez legoke horrenbeste, gure ustez, haiek beren artean antolatzeke unean, baizik eta mugimendu edo ekimen mistoen koordinazio- edo zuzendaritza-postuetan zein bilkura orokorretan besteekin batera egoterakoan.

Batzuetan, baina, esaten denak baino garrantzi handiagoa hartzen du esateko moduak, eta etorkinei buruz hitz egiterakoan, “haiek-gu” dikotomia antzeman dugu behin baino gehiagotan. Horrek ezin hobeto uzten ditu agerian gure gizartean aniztasunetik jarduteko ditugun zailtasunak, edozein dela ere kontuan hartu beharreko faktorea.

Azkenik, aniztasunaren aferan ere mugimendu feministak Arrasaten daukan aitzindaritza azpimarratzekoa dela iruditzen zaigu; gaitasun handia erakutsi baitu generoaren aldagaian indarra jarri eta bestelako ezaugarrien gaintetik ezberdinen artean zubiak eraikitzeke.

Ondorioak

Azken atal honetan, Arrasateko herri-mugimenduaren sinergia, elkarrekintza eta oztopoak aztertu ostean, herritartasunaren konfigurazioari, berrikuntzari eta aldaketei buruz hitz egingo dugu. Definitzeko zaila izan arren, Arrasateko herri mugimenduen praktikak ezagutu ostean, herritartasun berriak proposatzen ari direla ondoriozta genezake.

Herritartasun objektiboa, edo, bestela esanda, estatuak ezarritako baldintza batzuen pean bertako kideei onartzen diena, kritikatu izan da Arrasateko eragileen partetik. Bereziki, migratzaileentzat betetzeko ia ezinezkoak diren baldintza zailak ezartzen

dituelako, eta horren adibide “triste”tzat gogoratzen dute herrian oso aktibo zen Nepaldarren lekualdatzea.

Herritartasun subjektiboa, aldiz, identitate kolektiboaren gaiari dagokio, eta normalean nazio-identitatearekin lotzen bada ere, guk Arrasaten feministak egiten ari direna aipatuko genuke puntu honetan. Izan ere, liskarrak sor ditzaketen identitate ardatzak —naziotasuna, erlijioa— bigarren mailan jarri eta emakume-izaeran bilatu dute indar bateratzailea; gainera, behin ere ukatu gabe bateratzen dituen komun horren baitan dagoen aniztasuna. Antzeko jarrera erakutsi dute pentsiodunen mugimenduko kideek ere, aldarrikapen konkretuetan bilatuz indar bateratzailea, liskarrak sor ditzaketen epe luzeko identitateak —nazionalak, kasurako— bigarren mailan utziz.

Beste alde batetik, burututako elkarrizketa guztietan ikusi dugu herritartasun aktibo baten aldeko jarrera eta gaketzat agertzen dela parte hartzearen gaia; balioa eta lehenetasuna ematen diote herri-mugimenduek. Jakina, herri-mugimenduko kideak dira elkarrizketatuak eta hori bera da haien existentziaren motiboetako bat.

Maila mikro eta makroari dagokionez, gure ikerketako protagonista gehienak eremu mikroan ari direla ikusi dugu, eremu horretan gertatzen diren esperientzia eraldatzaileek maila makroan ere izan dezaketen balioaz jakitun izanik. Azkenik, herri-mugimenduen eta erakundeen arteko harremanari dagokionez, jarre-rak hobetzen ari direla aipatu digute, nahiz eta oraindik botere politikoaren borondateari lotutako kritikak agertzen diren.

Herritartasunari dagokionez, beraz, berrikuntza edo aldaketa batzuez hitz egin dezakegu Arrasateren kasuan. Izan ere, aniztasunaren erronka ardura bezala hartu, eta egon daitezkeen bereizketa zein zapalketa ezberdinen gainetik (generoa, klasea, jatorria, hizkuntza...) elkarrezagutzan eta elkarrekintzan oinarritutako planteamendu partekatuetan jartzen dute indarra. Gutxieneko adostasunetatik gehieneko komunetara joaz, eguneroko aldaketa txikietatik erroko aldakuntzara. Hori guztia, gainera, jarrera kritiko batekin egiten dute, topatzen dituzten ahulguneei eta arazoei muzin egin gabe. Hala ere, batzuetan asmoak praktikan gau-

zatzea falta da, hitzetatik errealitateak aldatzeko jauzi ematea; bereziki, aniztasunaren gaiarekin.

Ikerketak feminismoan, ekologismoan, migrazioan eta euskararen bultzadan konprometiturik dauden eragileetara hurbiltzeko balio izan digu; haien eguneroko lan-jardunaren erradiografia osatu bat egin eta gizarte-ehungintzan dituzten indargune eta ahulguneak identifikatzeko. Hala eta guztiz, ikerketa honetan sona txikia izan duten ahotsetan jarriko genuke fokua etorkizunera begira, aniztasunari buruz hitz egiterakoan erdigunean dauden baina falta diren horiengan; bereziki Arrasateko pertsona migranteengan.

4. Donostiako Emakumeen Etxea (DEE)

*Laura Muelas de Ayala, Carmen Díez Mintegui,
Miren Urquijo Arregi eta María Zapata Hidalgo*

Zer testuingurutan sortu zen

Donostiako Mugimendu Feminista 1970eko hamarkadaren amaieratik edo 1980ko hamarkaren hasieratik aritu da espazio propioa aldarrikatzen. Garai hartan hasi zen Mugimendua ikusgarri eta indartsu bilakatzen. Jarduera-maila handia garatu zuen, frankismoa amaitutakoan Espainiako estatuan sortu zen feminismoaren olatuaren eskariekin lotua (abortatzeko eskubidea, dibortzio-eskubidea, sexualitate askerako eta norberaren bizitza propiorako eskubidea).

Antzinako desio hura 2007an abiarazi zen prozesuan parte hartu zuten emakume askoren memorian zegoen. Prozesu haren ondorioz, gaur egun Donostiako Emakumeen Etxea den “espazio propioa” egikaritzea lortu zen.

Donostiako espazio horren aldarrikapena erakundeen —batez ere Donostiako Udalaren— eta emakume feministen nahiz ez feministen taldeen arteko sinbiosian oinarritu zen. Sinbiosi hark

inflexio-puntua izan zuen 2007ko udal hauteskundeak egin eta gero, berdintasun-gaietan ziharduen zinegotzigoa aldatu zenean.

Lau urteko prozesua izan zen, eta hainbat arazo izan ziren, bai ideia bultzatu zuen kolektiboaren beraren baitan, bai kolektiboaren eta erakundeen artean ere. 1998tik martxan zegoen Emakumeak eta Hiria Foroak¹⁶¹⁶ hartu zuen proiektuaren ardura, udalari aurkezteko asmoz. Ibilbide horretan beste oinarri garrantzitsu bat izan zen, Berdintasun Kontseilua, 1996an sortua¹⁷¹⁷; eta, azkenik, Plazandreok¹⁸, 1995ean alderdi politiko gisa eratu zena eta programan aldarrikapen hura zeramana.

Kontraesanak daude, prozesua irekia izan ote zen ala ez. Egiaztatuta dago hasieran emakume anitzek hartu zutelako parte, nahiz eta partaidetza hura Emakumeak eta Hiria Foroan, Emakumeen Kontseiluan eta Plazandreok-en sartuta zeuden taldeekin lotuta egon. Adinaren, ideologiaren, ikuspegi feministaren, prestakuntza intelektualaren eta klase sozialaren arabera aniztasuna presente egon zen; hala ere, emakumeak falta zirela mahaigaineratu zen, beste herrialdeetatik etorritako emakume eta gazte gutxik parte hartu zutelako. Asanbladak, eskuarki, gaztelaniaz izan ziren, ez baitzen erraza euskaraz hitz egitea, kolektiboan gehienak euskal hiztunak ez zirenean eta eztabaida asko tirabiratsuak zirenean.

Kogestioa: formula aitzindaria

Etxea kudeatu behar zen moduari buruz zeuden ikuspegi askotarikoak nola bateratu izan zen lehenengo eztabaidagaietako bat, desadostasun-iturri izan zena, gainera. Planteamendua auto-gestioaren eta kogestioaren formulatan oinarritu zen hasieratik.

¹⁶ https://www.donostia.eus/info/ciudadano/igualdad_asociaciones.nsf/voWebContenidosId/NT000009FA?OpenDocument&idioma=cas&id=A374066378624&cat=&doc=D [azken kontsulta: 2018-11-21]

¹⁷ https://www.donostia.eus/info/ciudadano/part_ciudadana.nsf/vowebContenidosId/NT00000A0A?OpenDocument&idioma=cas&id=A608306616960&cat=Consejos%20asesores&subcat=Consejos%20Sectoriales&doc=D [azken kontsulta: 2018-11-21]

¹⁸ <http://www.euskalnet.net/plazandreok/castellano/principal/granportal.htm> [azken kontsulta: 2018-11-21]

Bi formulek zalantzak eta arazo desberdinak eragiten zituzten. Emakume gazteenek eta ezkertiarrek autogestioa defendatzen zuten; arazoa zen ekonomiaren eta antolakuntzaren ikuspegitik espazioari nola eutsi. Kogestioaren aldekoek uste zuten Mugimendu Feministak erakundeekin harreman zuzenagoa izan behar zuela.

2007an Euskal Herrian nahiz Espainiako estatuan martxan zeuden Etxeen ereduetatik, batek ere ez zuen kogestioa zuzendaritza sistematzat. Kogestioa legala zen ala ez ebatzi eta gero, hura izan zen diseinatu zen eredia, gaur egun ere funtzionatzen jarraitzen duena. Gainera, Euskal Herriko hainbat tokitan irekitzen ari diren beste Etxe batzuetan orokortzen ari da kogestioaren formula. Donostiako Emakumeen Etxearen eguneroko praktikan, zera esan nahi du horrek: goizez, Udalaren Berdintasun Atalak okupatzen duela espazioa eta, arratsalde, Emakumeen Etxea Elkartea (EEE) da Etxea kudeatzearen eta jarduerak burutzearen ardura duena.

Udalaren Berdintasun Atalaren eta EEEren artean koordinazio jarraia egon behar dela esan nahi du kogestioaren formulak. Koordinazio hori oso agerikoa da Etxean antolatzen diren jardueren egitarauan; izatez, egitarau bateratuan islatuta geratzen dira. Koordinazioaren beste alderdi batzuk ez daude horren bistan, baina hortxe daude. Alderdi horiek gauzatzeko, hainbat batzorderen borondatezko lanean oinarritutako antolakuntza darabil EEEk. Batzordeok Koordinadora batean elkartzen dira hilean behin. Koordinadora hori da Donostia hiriko eta inguruetakoko udalerrietako jarduerak eta feministen eskarien erantzunak ebatzteaz eta bultzatzeaz arduratzen dena.

Hamar urteko esperientzia izan eta gero, proiektuan parte hartzen duten lagun gehienek balorazio positiboa ematen diote kogestioaren ereduari, berdintasun-politiken eta Mugimendu Feministaren arteko aliantzak eta sinergiak errazten dituelako. Kontuan izan behar da emakumeen etxe bat izateko eskaria piztu zenetik, Berdintasun teknikari eta zinegotzien elkarlana ezinbestekoa izan zela proiektua aurrera eramateko eta errealitate hori egikaritzeko.

Lokal ideala. Ebatzi gabeko auzia

Hasierako urteetan, Etxea nola kudeatu erabakitzeaz aparte, ebatzi beharreko beste auzi bat ere bazen: Etxea hartuko zuen lokala aurkitzea. Hasieran, Udalak eraikin eder bat proposatu zuen Emakumeen Etxea kokatzeko (Villa Soroa izenekoa), Donostiako Ategorrieta hiribidean, Irakasle Eskola izandakoa eta gerora UPV/EHUren hainbat zerbitzu hartu zituena. Birgaitze-lan handiak behar zituen eraikinak; horrek esan nahi zuen hainbat urteetan lanetan egongo zela eta aurrekontua altua izango zela. Finantziatio-iturriak bilatu bitartean, Udalak aldi baterako espazio bat eskaini zuen Okendo kalean, hiriaren erdialdean. Garai hartan asko eztabaidatu zen lokal hura okupatu ala ez, eta, azkenean, onartu egin zen, gaitz erdi zelakoan. Gaur egun, erabaki hura positibotzat jotzen da. Izan ere, Udalean gobernu-aldaketa izan zenean, Villa Soroa ikastola bat handitzeko erabiliko zela iragarri zen. Emakumeen Etxeko emakumeek maiz komentatzen duten zerbait da: Okendon sartu ezean, litekeena da Etxea ez existitzea.

Lokalak arazo ugari ditu espazioari eta egiturari dagokienez. Dokumentu honetan aurrerago ikusiko den bezala, horrek zailago egiten du antolatzen diren jarduerak gauzatzea eta eskaintza handitzea, edo askotariko informazioak eskatzera hurbiltzen diren emakumeei arreta egokia ematea —batzuetan, kontsultak gai pertsonalen ingurukoak izaten dira, eta beste emakume batzuen aurrean edo arreta jasotzeko zain dauden pertsonen aurrean egin behar izaten dituzte—. Horregatik guztiagatik, egungo lokala aldi baterako espaziotzat jotzen da oraindik ere. Lokala, aurkitu zuten bezala, ez zen oso erakargarria (udal bulegoak baitziren), baina, hala ere, bertaratzen diren emakumeek bere egin dute espazioa, eta beren beharrizanetara eta helburuetara egokitu dute.

Feminismorako erreferentzia gunea

Gaur egun Donostiako hirian dauden gizarte mugimenduen artean, berriro ere protagonismo handia hartu du Mugimendu Feministak (MF). Emakumeek oraindik ere pairatzen dituzten desberdintasunen aurrean biztanleriaren zati handi batek sentitzen eta adierazten duen nahigabearen erakusgarri dira azken urtee-

tako martxoaren 8ko manifestazio jendetsuak. Talde txikietako militantziak, aurreko olatuetan MFren bereizgarria izan zenak, bere horretan dirau, eta, aldi berean, pertsona kopuru handia ari da mobilizatzen. Erronka handia da ikustea nahigabe hori nola ari den bideratzen, etapa berri honetan.

Horren haritik, Emakumeen Etxea MFren eta MFrentzako erreferente bat da, eta erakargune bilakatu da, Mugimenduaren eta haren politiken eta praktiken artikulazio-gune. Era berean, taldeen eta pertsonen arteko hartu-emanak bultzatzeko gunea ere bada. Batez ere, proiektu eta ekimen ugariren harrera-gunea da: genero indarkeriaren arloan aurre egiteko eta esku hartzekoak, beste herrialde batzuetako emakumeei lan edo ikasketa-aholkularitza ematekoak eta emakumeak, oro har, ahalduntzekoak. Asanblada Feminista elkartzten den tokia ere bada. Asanblada Feminista 2017an berragertu zen, eta martxoaren 8aren inguruko ekintzak bultzatzen ari da.

Zalantzarik ez dago MFren eta erakunde publikoaren arteko harreman positiboan lagungarri izan dela Udaleko berdintasun-teknikariek ikuspegi feminista izatea. Horrenbestez, jarduteko modu eta nahi berberak dituzte, bai teknikariek, bai proiektuaren parte ere badiren gainerako kolektiboek. Hala ere, adierazi beharra dago beldur orokortu bat ere badagoela: erakunde publikoak hain partaidetza handia izanik, jardun ahaldungarria baino, jardun asistentzialagoa bultza dezakeela Etxera gerturatzen diren pertsona guztientzat. Kezka hori sarritan irteten da solasaldi informaletan eta elkarrizketetan.

Martxan dagoen eta hazten ari den elkarte

Emakumeen Etxea Elkartearen afiliazioa indibiduala da, erabilerera edo inplikazioa dakarten askotariko xedeetarako: prestakuntza-tailerretara joatea, norberaren kolektiboarekin elkartzeko espazio propioa izatea, lan ordaindua garatzeko toki bat izatea, zerbitzu batera bertaratzea eta abar. Formula horri esker, gainera, artikulazio handia sustatu da hainbat gizarte mugimenduren artean; izan ere, EEEren bazkideetako askok jendarte-mugimendu horiek informalki ordezkatzten dituzte. Halaber, adierazi

beharra dago ez dela beharrezkoa elkarteko kide izatea programatutako jardueretara bertaratzeko edo zerbitzuak erabiltzeko: jarduerak eta zerbitzuak emakume orori zuzenduta daude. Nolanahi ere, bazkide kopurua mila eta berrehunetik gorakoa da.

Horrela, bada, aniztasun handia dago Etxearen erabiltzaileen gan. Aipatzekoa da jardueren egitarauak emakume asko hurbiltzeko aukera ematen duela, beren burua feministatzat definitu ez arren. Izan ere, eroso sentiarazten dituen espazioa aurkitzen dute han, ahalduntzeko tresna berriak eskuratzen laguntzen dien espazioa, eztabaidak aberasten dituen belaunaldiarteko aniztasun zabala aurkitzeko espazioa. Eta emakume horiek, apurka-apurka, luzaro irauten duten taldeetako partaide bilakatzen dira, eta Etxearen antolakuntzan barneratuz eta inplikaturaz joaten dira.

Hala ere, pertsona guztien inplikazio-maila ez da berbera, eta emakume migratzaileen ausentzia azpimarratu da, batez ere, kudeaketa-organoetan. Baina espazioaren erabileran ere ausentziak daude: emakume migratzaileen mugimenduen, aniztasun funtzionala duten emakumeena edo emakume gazteen. Errealitate hori nabarmena da DEEn. Adibidez, egiaztatzen da 50 urtetik gorako emakumeak direla Etxea gehien erabiltzen dutenak, belaunaldien arteko harremana begi-bistakoa bada ere. Alde batetik, emakume gazteak jarduera jakin batzuetara joaten dira, esate baterako, autodefentsa-taldeetara edo -tailerretara, edo artearen edo klown-tekniken bidezko aktibismora. Beste alde batetik, emakume helduek edo nagusiek nahiago izaten dituzte talde-irakurketako edo xake jokoan aritzeko taldeak. Hala ere, bai batzuek, bai besteek nabarmendu dute espazio berean beste belaunaldi batzuetako pertsonekin bizikidetzan aritzeak esperimentziak eta ezagutzak partekatzeko aukera eman diela.

Aniztasunari aurre egiten eta aniztasuna artikulatzen

Adinaren aldetik nolabaiteko bereizketa eragiten duen alderdi bat euskara da. Izan ere, gazteenak dira euskaraz antolatzen diren jardueretara bertaratzeko direnak. Hizkuntzaren auzi honi dagokionez, aipagarria da DEEn euskararen presentzia gaur egun

muineko eztabaidetako bat bilakatu dela, hasieran eta Etxea abiarazi zenean garrantzi handiko gaia izan ez arren" kendu eta jarri "garrantzi bereziko gaia ez izan arren.

Jarduera batzuek maila kultural jasoa eskatzen dute, eta nolabaiteko kezka sortzen duen beste alderdi bat da hori: DEE ez ote den ikasketa-maila apalagoko emakumeen beharrianak bete gabe uzten ari. Aniztasunarekin lotuta, MFren baitan badago gaur egun, Espainiako estatuan, eztabaida bat. Etxean parte hartzen ari diren edo parte hartu duten kolektibo feminista batzuek "emakume" subjektuaren inguruko diskurtso zabala badute ere, oro har, ez da gai horren inguruko eztabaida publiko edo agerikoa sortzen ari. Horrenbestez, galdetzekoa litzateke ea DEE ez ote den emakume cis, zuri, gaitu eta helduen beharrianak bakarrik betetzen ari.

Emakume migratzaileen partaidetzari dagokionez, ordute-giak galga izan daitezke. Hain zuzen ere, emakume horiek dira zaintza-lan formalei neurri handiagoan eusten dietenak, eta oso asti gutxi izaten dute aisialdiari edo aktibismoari eskaintzeko. Astia izanez gero, ez dator bat tailer edo talde asko antolatzen diren ordu-tarteekin. Hori dela-eta, kolektibo honentzat berariaz antolatutako jarduerak arratsalderako programatzen dira, oro har, 16:30etik 18:30era. Gainerako emakume ez-migratuak, al-diz, DEEera 19:00ak aldera joan ohi dira. Hortaz, denbora-espazio muga bat sortzen da.

Gainera, emakume migratzaileei dagokienez, erronka nagusia "haien" eta "gure" dikotomiak haustea da, ikerketa osoan hain presente egon direnak. Alde batetik, emakume migratzaileak talde homogeneo gisa hauteman ohi dira, eta, bestetik, DEEren aniztasunari buruz galdetutakoan, emakume migratzaileak aipatzen dira neurri handi batean, baina beste diferentzia batzuk, existitu arren, ez dira bistaratzen, hala nola adina, sexu-orientazioa edo klase soziala. Gorago aipatutako denbora-espazio muga horiek erantsi behar zaizkio honi. Gainera, askoren iritzia da emakume migratuek proportzio altuagoan erabiltzen dutela etxea modu asistentzian, oro har. Ahots kritikoagoek bestelako iritziak ematen dituzte batzuetan, alegia, balorazioak egiterakoan, garrantzitsua dela abiaburuko testuinguruak kontuan hartzea.

Auzi horiei dagokienez, Etxearen kezka handienetako bat zerbitzuen zentro asistentzial edo kultur etxe ez bilakatzea izan da, eta kezka handia da, gaur egun ere. Arazo hori konponduz doala dirudi, orain arte bederen. Alde batetik, begi-bistakoa da ez dena kultur etxea, bultzatzen diren dinamikak eta gaiak ikusita. Beste aldetik, DEEk, zerbitzu zehatz bat eskatzera hurbiltzen diren emakumeei arreta eman ez ezik, espazioari erabilera parte-hartzaileagoak ematea proposatzen die eta are Etxearen antolakuntzan aritzea ere, ahalduntze feministaren bidean aurrera egiteko beste modu bat bezala. Horren erakusgarri, antzerki-talde feminista, indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko emakumeen taldea edo askotariko jatorrietako emakumeentzako kulturarteko espazioa.

Egungo espazioaren mugak

Baina klasearen, adinaren, jatorriaren eta abarren arabera-ko aldeez aparte, badago Etxean partaidetza galgaten duen auzi handi bat: lokala bera. Gorago adierazi dugun bezala, lokalak arazoak ditu espazioari eta egiturari dagokienez. Egitura-arazoen erruz, Etxean ez dira bistaratzen aniztasun funtzionala duten pertsonak, ezin direlako barrutik mugitu. Etxeak hiru solairu ditu, eta solairuen arteko eskailera estua da. Duela gutxi, aniztasun funtzionala duten emakumeen talde bat abiarazi da, eta, litekeena da egoera hori hobetzeko eskari-multzo bat diseinatzeari ekitea.

Horretaz gain, Etxera datozen emakume guztiei eragiten dien beste arazo bat espazio faltarena da. Ez dago espazio komunik zeinetan egon, elkartu eta hitz egin. Pertsona gehienak jarduera jakin batera joateko hurbiltzen badira ere, espazioak aipatutako ezaugarriak balitu, elkarren arteko komunikazioa eta aniztasunaren ikusgarritasuna erraztuko lituzke.

Emakumeen Etxea martxan egon den urteetan, inoiz ez diote utzi baldintza hobeak izango dituen lokal handiago bat bilatzeari. Auzoetan Etxearen sukurtsalak ezartzeko ideia ere izan dute gogoan, baina konponbide hori alboratu egiten da: espazio konpartituak duen indarra galtzea suposatuko luke horrek. Era

berean, beste antolaketa-formula batzuk ere abiarazten ari dira, jarduerak hiriaren beste gune batzuetara eramatea, kasurako, Feministaldia¹⁹ ekimenean egin zuten bezala, DEEren ikusgarritasuna areagotuz.

Lokalaren gaiak hainbat ekimen eta aukera zailtzen ditu, eta energia-gastu handia eragiten du, izan beharko lukeen espazio feministari buruz beti hausnarketan dagoen proiektua delako. Askok dira Etxera joaten diren emakumeak, askotariko arrazoiak direla-eta: asko, bestelako udal edo probintzietako zerbitzu batzuetan jaso ez duten laguntza eske, beste batzuk, beste espazio batzuetan aurkitzen ez dituzten jardueretan parte hartzera, edota feminismoari ekitera. Datozen urteak erabakigarriak izango dira, proiektua sendotzeko eta hazteko bidean.

¹⁹ <https://feministaldia.org/>

5. Errenteria. Aniztasuna eta horizontaltasuna antolatzen



*María Ruiz Torrado,
Irantzu Fernández Rodríguez,
Maggie Bullen eta Amaia Agirre Miguélez*

Errenteria Gipuzkoako Oarsoaldea eskualdean kokatuta dago, eta Gipuzkoako hirugarren herria da populazioari dagokionez. XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera, biztanleriak gora egin zuen nabarmen; 1980. urtean populazioa laukoiztera ailegatu arte, industrializazioaren bultzadaz eta Espainiako estatuko beste lurraldeetatik etorritako jendeari esker. Azken urteetan, aldiz, populazioa galdu du, nahiz eta atzerriko herritarrak jaso; izan ere, Errenteriako populazioaren %8 inguru beste herrialdeetatik etorritakoak dira. Hirugarren sektorea nagusi izan arren, industriaren presentziak nabarmena izaten jarraitzen du gainerrako lurraldearekin alderaturik.

Oro har, Errenteria mugimendu handiko herria da. Mugimendu politiko klasikoek gain, funtsezkoak izan dira herri-mugimenduak. Auzo-elkartek hirigintza jasangarri baten alde egindako lana azpimarragarria da, mugimendu feministaren indarrarekin batera; eta Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimenduaren (EHGAM) sorrera ere herri honetan kokatu behar dugu. Gaur

egun, hainbat talde mugitzen dira feminismoaren bueltan, eta erronka handienetarikoa bat Emakumeen Etxearen proiektua kudeatzea da, aldarrikapen historikoa izanda. Euskalgintzaren inguruko mugimendua ere nabarmena izan da.

Erreneria herri anizkoitz bezala proiektatzen da, baina zaila da aniztasuna gizarte-mugimenduetan islatzea eta definitzea: anizkoitza izateko asmoa eta nahia ohartzen da, baina praktikan ez da beti azaleratzen. Nola kudeatu ahal da aniztasuna? Nola uztartu horizontaltasunarekin?

Antolatzeko, parte hartzeko eta erabakitze moduak

Ikerlan honetan parte hartu duten eragileetako kideen iritziz, azken urteetan nabarmen aldatu dira herri- edota gizarte-mugimenduetan aritzeko moldeak. Aipatzen dutenez, jendartea gerok eta indibidualistagoa da, sare sozialek harremanetan egoteko moduak izugarri eraldatu dituzte eta, gainera, gerok eta zailagoa da topatzea kolektibo batekin lotu eta konpromiso hori denboran zehar mantentzeko prest dagoen jendea. Iraganeko eredu asanbleario eta autogestionatua agortzen ari dela pentsatzen dute askok, bai eta auzolanaren kultura desagertze dagoela ere. Horrela, egungo testuinguruan nagusi diren eredu, balio eta erritmoen ondorioz, aktibismoak erronka berriei aurre egin behar izan die, antolatzeko, parte hartzeko eta erabakitze moduak birformulatu.

Gaur egunean, antolatzeko erak askotarikoak dira. Baina badirudi antolamendu asanblearioak nagusi izaten jarraitzen duela —nahiz eta elkarrizketetan agortze dagoen eredu delako iruditatu—, hainbat arazo izan arren. Azken batean, horizontaltasuna lortzea funtsezkoa da eragile gehienentzat, eta batzarraren ereduak taldekideen arteko botere-harremanak gutxitzen ditu, kolektiboko kideak aldi-aldi elkartu egiten direlako eta erabaki nagusiak aurrez aurre hartzen dituztelako.

Haatik, Erreneriako eragileen artean bestelako antolaketa ere aurkitu daitezke. Batzuk talde motor baten inguruan aritzen dira, talde hori izanik erabaki asko hartzen dituen, kolektibo-

ko gainerako kideen parte-hartze puntualarekin. Badira elkarte-gintzan oinarritzen diren eragileak ere; “elkartearen” figura juridikoaren araberakoak, alegia. Horiek Zuzendaritza Batzordea dute, urtero ohiko batzarra egiten dute eta bazkideak –eta, kasu batzuetan, baita langileak ere– izan ohi dituzte. Antza denez, elkartegintzan oinarritzeko joera areagotuz joan da, besteak beste, udalaren diru-laguntzak lortzeko ezinbesteko baldintza delako. Edozein kasutan, antolaketa-eredu ezberdinak uztartzen dituzten eragileak ere badaude, garai berrietara estrategikoki egokitzeko ahaleginean.

Egungo egoeran aurrera egiteko saialdi horretan, hain zuzen ere, aipagarriak dira parte-hartzea bultzatzeko eragileek gauzaturiko askotariko ahaleginak: hitzorduak dataz edo tokiz aldatzea jende gehiagok izateko bertaratzeko aukera, batzorde edota talde dinamizatzailerak sortzea, sare sozialak erabiltzea, eta abar. Kasu batzuetan, kanpo-agente adituengana ere jo izan da parte-hartzea hobetzeko. Horren adibide argia dugu, esate baterako, Emakumeen Etxearen sorrera-prozesua; bada, hastapenean egindako hausnarketa-fasea gauzatzeko, Udalak Elhuyar aholkularitza-entresa kontratatu zuen, prozesua parte-hartzean eta berdintasunean oinarrituta egotea bermatzeko.

Emakumeen Etxea mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa izanda ere, Berdintasun Kontseilutik sustatutako proiektua izan da; bertan, berdintasuneko zinegotzia, berdintasuneko teknikaria eta herriko hainbat emakume biltzen dira –emakume horietako batzuk talde feministetako edo auzo elkarteetako kideak izanik; besteak, banako bezala doazen partaideak–. Emakumeen Etxearen sorrera-prozesuan horizontaltasuna bilatu da une oro; gogoeta-fasean ez ezik, prozesu guztian zehar ere bai. Horretarako, Berdintasun Kontseiluko koordinazio eta dinamizazio orokorraz harago, asanblada irekiak egin dira aldizka, orotara hirurogei bat emakumeren parte-hartzea lortuz. Egitasmoa barneratzailea izateko nahiak prozesua astiroago gauzatzeko eragin du, baina partaideak pozik daude emaitzarekin, asanbladan hartu direlako ia erabaki guztiak (zer-nolako harremana izan Udalarekin edo zer araudi ezarri, adibidez). Prozesuan, Emakumeen Etxea ahalik eta emakume gehienengana iristeko moduari buruzko kezak eta eztabaidak izan dituzte: zer egin erreferentziatzeko espa-

zio bilakatzeko, nola lortu proiektua interesgarria izatea herriko edozein emakumerentzat, Etxea “feminista” izendatu edo ez, eta abar.

Azken kezka horrek subjektu politikoaren eraketari egiten dio erreferentzia, eta aipatzekoa da eragile askorentzat buruhaustea dela. Azkenaldian, badirudi subjektu hori ahalik eta modu zabalean formulatzearen alde egiten ari direla batzuk, proiektu zehatzen arabera era batean edo bestean artikulatu ahal izateko, aliantza handiagoak osatuz. Esaterako, Saretuz Proiektuaren kasua da, zeina, euskalgintzan kokatzen den eragilea izan arren, urtero Homofobiaren Aurkako Zebrabidearen antolatzaileetako bat den, EHGAM sexu-askapenerako taldearekin, Iztieta “Gurekin” auzo elkartearekin eta Errenteriako Udalarekin batera.

Horrelako kezkez eta eztabaidez harago, gatazkak ere izan ohi dira, eragileek antolatzeko, parte hartzeko eta erabakiak hartzeko dituzten moduak direla eta; esate baterako, askotan harremanak ez direlako nahi bezain horizontalak, lidergo negatiboak sortzen direlako, informazioa ez delako ondo partekatzen edota zenbait deliberamendu asanbladatik kanpo eta taldekide guztiak kontuan hartu gabe hartzen direlako. Halako arazoak gainditzeko, zenbait eragilek barne-lanketa espezifikoa abiatu dituzte.

Eragileen arteko (botere-) harremanak

Errenteriako herri- edo gizarte-mugimenduen arteko erlazioei dagokienez, agerikoa da elkarguneak egon badaudela, nahiz eta agian ez izan batzuek nahiko luketen bezain ugariak eta ohikoak. Dirudienez, alor berean aritzen diren eragileen arteko harremanak nahiko arruntak dira. Kasu baterako, herri- nahiz eskualde-mailan, sarriak dira kolektibo feministen arteko edo euskalgintzan aritzen diren taldeen arteko elkarrekintzak. Eremu ezberdinetako eragileen arteko elkarguneak, ordea, noizbehinkakoagoak dira. Haatik, elkarriketatuek oso ondo balioesten dituzte, besteak beste, munta handikoak iruditzen zaizkielako elkar ezagutzeko, gerturatzeko, estereotipoak edo aurreiritziak gainditzeko eta sinergiak sortzeko. Alor ezberdinetako eragileak elkartzearen esperientzia emankor moduan Emakumeen Etxearen

prozesua aipa dezakegu; bada, prozesua interesgarria eta emanorra izan da ordura arte elkar ezagutzen ez zuten emakumeak gerturatzeko, batik bat, auzo elkarteetako eta talde feministetako emakumeak elkarlanean aritzeko, batzuen zein besteen aurreiritziei aurre egiteko, tentsioren bat edo beste egonda ere.

Jardun berean parte hartzea, beraz, eragile ezberdinak harremanetan jartzeko modua izan daiteke. Aitzitik, badirudi beste kasu batzuetan pertsona zehatzak direla eragile ezberdinen arteko zubi-lanak egiten dituztenak eta, hala, gizarte-mugimendu ezberdinen arteko loturak ehuntzen dituztenak. Izan ere, eragile batean baino gehiagotan parte hartzen dute zenbait norbanakok, horien arteko elkarguneak sustatuz.

Bestalde, kontuan hartu behar da badaudela hainbat kolektibo, beste batzuekin elkartu eta aliantzak sortzeaz gain, beren baitan biltzen dituztenak hainbat aktibismo-esparru. Besteak beste, Zintzilik irrati librearen edo Mikelazulo kultur elkartearen kasua izan daiteke, eragile horiek hainbat gai lantzen baitituzte: feminismoa, ekologia, kultura-aniztasuna, migrazioa, euskara, eta abar.

Eragile ezberdinen arteko elkarlana ohikoa izan arren, harremanak ugariagoak ez izatea eragiten duten oztupoak edo ahulguneak aipatzen dituzte zenbait kolektibok. Hasteko, egungo testuingurua mahaigaineratzen dute, gizarte-mugimenduak apaldua baitaude oro har, gizartean desmotibazioa eta desmobilizazioa nagusi izanik. Alabaina, bestelako faktoreak ere nabarmentzen dituzte: kasu baterako, eragile zehatzen artean gertatutako liskarrak, ekimen zabaletan denak eroso sentiarazteko gaitasun falta, baita eremu askotan udalaren presentzia geroz eta handiagoa izatea ere.

Azken puntu horri dagokionez, hain zuzen ere, aipagarria da gaur egun ikerketa honetan elkarrizketatutako eragile guztiak daudela harremanetan Udalarekin; erlazioa sendoagoa edo ahulagoa izan, zuzenagoa edo zeharkakoagoa. Kolektibo gehienek nabarmentzen dute egungo udal taldearen jarrera, aurreko udal taldearekin alderatuta batik bat, asko hobetu dela gizarte-eragileak kontuan hartzeari dagokionez eta prozesu parte-hartzaileak abiatzeari dagokionez, bai feminismoaren alorrean, baita euska-

raren eta kultura-aniztasunaren eremuetan ere. Hala, aurretik ez zeuden –edo askoz gutxiago garatuta zeuden– zubiak egin dira Udalaren eta herri-mugimenduen artean, eta eragile gehienek positiboki balioesten dute aldaketa. Arazoak izan badiren arren eta eragile batzuk oso kritikoak izan arren erakundearekin, egun arrunta da eragileek lotura izatea Udalarekin; diru-laguntzak jasotzen dituztelako, udal espazioak erabiltzen dituztelako, edo zinegotzi eta udal teknikariek batera udal politikak eztabaidatu egiten dituztelako (Berdintasun Kontseiluan, Kultura Aniztasunerako Mahaian eta halakoetan).

Aniztasunaren artikulaziorako prozesuak eta tresnak

Aniztasun mota asko daude, gizarte-aldagaiak bezainbeste: adina, “arraza”, klasea edo egoera sozioekonomikoa, ideologia (politikoa, feminista...), gaitasun funtzionala, sexua, generoa eta preferentzia sexuala... Hala ere, aztertu ditugun mugimenduetan homogeneotasuna nagusitzen da: nahiz eta datu kuantitatiborik ez izan, elkarrizketatuen iritziz, parte-hartzaile arrunta izango da pertsona heldua, egoera sozioekonomiko “ertainekoa” eta politikoki ezkertiarra. Aniztasun funtzionala ikusezina da, baina aniztasun sexualaren presentzia –eta beraren aldeko posizionamendua– nabari da.

Hori dela eta, “aniztasun” hitza eufemismo hutsa izan daiteke eta interseksionalitatearen kontzeptua behar dugu hainbat aldagaik egiten duten bidegurutzea ulertu ahal izateko. Askotan, migrazioarekin nahasten da aniztasunaren ideia, “aniztasun” hitzak jatorri ezberdineko jendea edo kultura-sistemak burura ekartzen baititu, baina migrazio guztiek ez dute aniztasuna ekartzen eta aniztasunaren iturria ez da beti izan behar migrazioa (ijito komunitatearen kasuan, esaterako). “Hemengoak” edo “bertakoak” terminoak alderatzen dira “kanpokoak” edo “emigrante” hitzekin, baina kategoria horiek ez dira batere argiak, nahasten baitituzte Estatuko migrazioak eta Estatutik kanpoko giza mugimenduak. “Aniztasun” hitzak, berriz, ezkuta ditzake migrazioak dituen ezaugarri bereziak: mugak, paperak eta Atzerriartasun Legea. Migrazioari buruz ari garenean, egoera sozioekonomiko eta politi-

ko jakin batez, giza eskubideez, ari gara; aniztasunaren kontzeptua, aldiz, aspektu kulturaletan oinarritzen da.

Migrazio garai eta mota ezberdinak izan dira Erreenterian. Espainiako estatutik hirurogeiko hamarkadan herrira gerturatu zirenek hainbat elkarte sortu dituzte –Andaluziakoak, Extremadurakoak, eta abar–; eta Zintzilik Irratian, haien jatorrizko hizkuntzan, haien herriei buruzko saioak egin dira, adibidez, galizieraz eta Galiziaz. Estatutik kanpo datozen pertsonak bizitza kulturalera hurbiltzeko hainbat saiakera ere egin dira, Mikelazuloren bitartez, adibidez, nahiz eta noizbait talka kulturalak gertatu diren; zubi-lanak egiten dira, esaterako, herri indigenen zapalkuntza-istorioak berreskuratuz, hizkuntza minorizatuen inguruko ekimenak eginez, bestelako kultura sistemak Euskal Herriko esperientziarekin alderatuz.

Argi dago hizkuntza giltzarri dela sozializazio-prozesuetan: pertsona etorkinen eta bertakoen arteko harremanak sortzeko eta parte hartzeko modu ezberdinak agertzen dira hizkuntza-elkartrukeen bitartez. Bai Udaletik, baita euskararen alfabetatzearen mundutik ere, etorri berriei euskaraz ikasteko baliabideak eskaintzen zaizkie. Bestetik, jaiak antolatzen dituztenek estrategia ezberdinak diseinatu dituzte: Kuadrillen Eguna “Munduko Kuadrillen Eguna” bihurtu dute, non hainbat jatorritako kolektiboek parte hartzen duten: arabiarrek tatuaiak eta janak egiten, kubatarrek kantatzen, katalanek gaueko emanaldian... Munduko Arrozen egunaren antolaketa ere egin dute.

Aztertutako herri-mugimenduen artean, adierazgarriak egin zaizkigu etorkinen inguruan sortzen diren elkartasun-sareak beharrian ekonomiko zehatzei aurre egiteko. Hartara, esan genezake migratzaileen kolektiboen inguruan edo alboan eragile zein erakunde ugari dagoela: Mikelazulo, Saretuz Proiektua, AEK, Lau Haizetara, SOS Arrazakeria, Udala, GOT-Grupo Oarso Taldea, Ongi Etorri Errefuxiatuak... Kasu baterako, GOT eragilearen eginkizuna sozioekonomiaren eremukoa izan arren, migrazioaren inguruko sentsibilizazioan ere lan egiten du; adibidez, errefuxiatuen gaia landuz. Eragile horien arteko elkarlana funtsezkoa izan da kultura-aniztasunaren ikuspegia garatzeko, baita etorkinei babesa emateko eta haien errealitatea ikusarazteko ere.

Feminismoa eta aniztasuna

Feminismoaren ardatzari helduta, feminismoak askotarikoa izateko helburua izan arren, ez da beti lortzen. Izan ere, Emakumeen Etxearen planteamendua da emakumeek elkarri lotzeko uztarriak aurkitzea eta espazio komun bat eraikitzea, baina aniztasuna iheskorra agertzen da eta orain arte oso talde homogeneoa izan da. Beharbada, arazoa ez da feminismorena soilik: aniztasunaren kudeaketa gizartearen ardura da eta gizarteak, oraindik, ez du laguntzen “bestea” eroso sentiarazten. Ulergarria da, halaber, lan- eta bizi-baldintzak gogorrek direlako, kanpotik etorritako emakumeek ez dutela aukera izango hainbat borrokatan sartzeko. Ezin da suposatuta emakume atzerritar batek, emakume izateagatik, hemengo feminismoa edo hemengo Emakumeen Etxea bere egingo duenik. Bertako emakume asko ere ez datoz bat Euskal Herriko feminismoarekin: oraingoz, “feminista” hitza ez da modu berdinean antzematen. Feminismoa nola kudeatzen da jatorrien aniztasunetik?

Udaletik zein hainbat elkartetatik ekintzak burutu egin dira generoaren eta aniztasunaren gaia uztartzeko; esaterako, kultura arteko emakumeen taldea sortu da berdintasuneko teknikariarekin, bertakoen eta kanpotik etorritako emakumeen arteko elkar-gune bat egiteko, sukaldaritza edo janaria aitzakiatzat hartuta eta, tailerrak eskaintzeaz gain, generoari lotutako gaiak landuz. Jatorri kulturalaren arabera zailtasun gehiago edo gutxiago izan ditzakete: parte-hartzeko erritmo ez-jarraituak (ordutegi ezberdinen eta lan-kargen ondorio), hizkuntzaren kudeaketa, motibazio falta, baliabideen gabezia, kulturen arteko hierarkiak, emakumeon askatasuna edo menpekotasuna.

Genero-harremanen gaian eztabaidarako beste korapilo bat sortzen da gizonen parte-hartzeaz ari direnean. Emakumeen Etxean, esate baterako, jarduera mistoak egiteko aukera aurreikusita da, betiere jardueretan berdintasunaren gaia ardatza bada. Kultura-aniztasunaren eremuan emakumeak dira gehienbat elkarte zein ikastaroetan parte hartzen dutenak. Horregatik, gizonek ere generoaren inguruko lanketa egiteko beharra azpimarratzen da. Emakumeen eta gizonen artean elkarlanean ari-tzea genero ikuspegi ezberdinetan sakontzeko aukera bezala da:

kulturen artean ezberdintasunak daudela adierazten du; maro-koarren artean gizonak baldin badaude, emakumeek ez dute hitz egingo. Horrez gain, generoaren betiko eskema errepikatzen da, non, nahiz eta emakumeak gehiengoa izan, gizonek zuzendarien rolak betetzen dituzten eta emakumeak erabakitze-guneetatik kanpo geratzen diren.

Beti izan gara anizkoitzak?

Laburbilduz, aniztasunak askotan ez du gainditzen diskurtsoaren maila, eta ez da egunerokotasunean zabaltzen. Oso momentu puntualetan agerian geratzen da, kanpaina edo ekintza berezietan, askotan teknikariek bultzatuta, baina keinuak besterik ez dira. Aniztasunaren maila ezberdinak daude. Espazio, elkarte edo enpresa bat anizkoitza izan daiteke, han mugitzen edo lan egiten duten pertsonengatik edo aniztasunari ongi etorria ematen zaiolako. Baina gero, egunerokotasunean, elkarbizitzan, jende askotarikoekin harremanetan gaude? Baliteke aniztasun hori ez dela ematen, bestelako kolektiboak txikiak direlako eta ez dira nahikoak gehiengoan islatu ahal izateko. Aniztasuna kontuan hartzen dugunean, ekintza konkretu bat antolatzen dugunean, aniztasuna irudikatzen dugu, baina espazio edo ekintza horretatik kanpo, ez dago. Baten batek uste du aniztasuna ez dela beti egongo eta ez dela beti egon behar. Ahalik eta inklusiboena izatea da helburua eta zentzu horretan egiten da lana, baina ezin da derigortu, ezta behartu ere.

6. Kulturarteko Plaza Feminista. Hernaniko Emakumeen Etxea

*Miren Guilló Arakistain,
Marta Luxán Serrano eta Mari Luz Esteban Galarza*

Hernani Donostia alboan dagoen herria da. 20.000 biztanle ditu eta bizitza sozial, kultural eta politiko bizia, gizarte-mugimendu askoren parte-hartzearekin, hala nola, AMHER SOS Racismo, Hernaniko Elkarte Multikulturala (hemendik aurrera, AMHER), zeinak aholkularitza juridikoa eta soziala eskaintzen dien migratzaileei eta aniztasunaren inguruko gaiak lantzen dituen. Aipagarriak dira, orobat, eremu feministan edo euskararen bultzadan ari diren taldeak eta ekimenak, edota Hernani Zero Zabor, hondakinen arlokoa. Azken hiru legealdietan, EHBilduk izan du gehiengoa Udalean.

Ikerketa honetan, bertako emakumeen etxearen sorrera prozesua aztertu dugu eta, horren bitartez, herriko gizarte-mugimenduen arteko harremanak. Etxeari Kulturarteko Plaza Feminista (KPF) izena jarri diote eta “urrutitik datorren amets” moduan identifikatu dute zenbait berriemailek.

Oraindik bukatu gabe dagoen KPFA eraikitzearen prozesu nagusia 2016-2017 ikasturtean garatu zen. Udala izan zen sustatzailea, baina proiektua talde feministak zein banakoak ba-

tzen dituen Berdintasun Kontseiluak aspalditik bultzatutako proposamena izan zen. Prozesu hori ekimen sozialen bilakaeran aditua den kooperatiba batek dinamizatu zuen, eta bertan, herriko elkarte eta kolektiboek eta banakakoek parte hartu zuten. Dena den, prozesua abiatu ahal izateko hainbat faktore lagungarri izan ziren, hala nola, herrian dagoen Txoko Feministan eta Bilgune Feminista elkartean izandako jarduna, hezkuntza-zentroetan garatu zen Harremonak programa, edota azken urteetan, Euskal Herrian, mugimendu feministak, Emakumeen Etxeek edota Ahalduntze Eskolek izan duten loraldia.

Hernanin eraikitzen ari den etxeak badu berezitasun nagusi bat: emakumeen etxea izateaz gain, espazio fisiko berean egongo baita AMHER; bi proiektuak elkarri eragiten. Kontuan hartu behar da hainbat emakume migratzaile bi proiektuetan dabiltzala eta, oro har, ikerketan parte hartu duten berriemaile denek mota orotako diskriminazioen kontrako gune erreferentzialtzat sentitzen dutela etxea.

Egun, eraikinaren obrak aurrera badoaz ere, KPF prozesua etenaldian dago eta hori ulertzeko aldagai ezberdinak aipatu dituzte elkarriketatuek: (1) etxearen obra egiteko lehiaketa publikoa egin zen eta hori guztia administratiboki prestatzen aritu dira; (2) eraikuntzaren irizpide ekologikoez garestitu eta moteldu egin dute prozesua; (3) teknikarietako bat bajan egon da; eta (4) Udaleko arkitektoa borondatezko eszedentzian egon da. Bartzuentzat normala da hau guztia, prozesu administratiboek denbora daramatela uste baitute; beste zenbaitek ez dute geldialdia ulertzen. Zenbaiten iritziz teknikariek eta dinamizatzaileek pisu handia izan dute prozesuan eta, ondorioz, eurak egon ez direnean taldea ez da bere kabuz aktibatu. Prozesuaren berraktibatzea, KPFAren irekierarekin batera gertatuko dela aurreikusten dugu, hots, 2020ko udazkenean.

Jarraian, emakumeen etxeen analisisan, oro har, eta Hernaniko prozesuan, bereziki, ikusi ditugun zenbait gai eta eztabaidari begiratuko diegu.

KPF eraikitzearen prozesuaren inguruko zer-nolakotasunak eta eztabaidak

Emakumeak biltzeko, politika egiteko eta formakuntzarako gune diren etxe horiek mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa dira, nahiz eta, oro har, udalak izan diren eskaera hori bideratu eta parte-hartze prozesuak lagundu edo abian jarri dituztenak. Feministentzat erakundeekiko harremana kezka-iturri izan ohi da. Hernaniko kasuari begiratzuz gero, ikusten dugu mugimenduen eta instituzioen arteko harremanak errazak izan direla, baina badaude horien gaineko jarrera kritikoak ere, gutxi izan arren.

Bestalde, harreman horietan eragina dute norbanakoen posizio anizkoitzek, hau da, aldi berean mugimendu baten edo gehiagoren kide edota erakundeetako ordezkari eta langile direnak. Horrek kontrajarritako ondorioak ditu. Alde batetik, mugimenduen arteko harremanak, sintonia, kohesioa eta diagnostikoak errazten ditu, baina, bestetik, batzuetan erakundeak eta mugimenduak ezberdintzeko zailtasunak sortzen ditu, edo pertsona konkretu horien ikuspegiak garrantzia (eta botere) handiegia hartzen dute, besteak beste. Hernaniren kasuan, KPF eraikitzearen prozesua instituzioen ordezkariak monitorizatu dute, baina, oro har, ez dago inolako kezarik horren inguruan.

Espazio fisikoari dagokionez, eztabaida interesgarriak aurkitu ditugu. Esan moduan, Hernaniko etxea herriko feministek eta AMHEReko kideek partekatuko dute. Horrek bere unean tentsioa eragin zuen, ez etxea partekatu behar izateagatik, baizik eta erabakia hartzeko moduagatik: Udalak hasieratik erabakita bazuen ere, parte-hartzaileek behin prozesua aurreratua zegoela izan zuten honen berri.

Asanbladak izan dira erabakigune nagusi. Hain zuzen, prozesuan izan diren eztabaida nagusiak etxearen diseinuari lotuak izan dira. AMHEReko emakumeek sukalde handi bat eta umeak zaintzeko zerbitzua egotea eskatu zuten, eta bi gai horien inguruan eztabaida sortu zen. Hain justu, feminismoan eskarmentu eta denbora gehien daramaten partaideak izan ziren erabat kontra agertu zirenak, argudiatuz etxeak balioaniztunak izan-

go liratekeen espazioak behar zituela. Beraz, belaunaldiak ere eragina izan du. Jarrera horren atzean bi arrazoi nagusi zeuden: bata, praktikoa, espazioa ahalik eta eginkizun gehiagotarako aprobetxatzea, baina, bestea, haraindikoagoa, sinbolikoa, emakume-izaera eta genero-identitate jakin bat elikatzeko baliagarria izan zitekeen bi eginkizun horiek (kozinatzea eta umeen zaintza emakumeen ardura balitz bezala) nabarmentzearen kontra agertzea. Hau da: feminista migratzaileentzako balio praktikoa nabarmena zuen sukaldeak; feminista helduenei dagokionez, nolabait, sinbolikoki “sukaldearen kontra eraikitako feministak” ziren; gazteenentzat, ordea, ez zen horren afera garrantzitsua izan.

Bestalde, haurtzaindegiarekin antzeko eztabaida sortu zen. Askok ez zuten haurtzaindegirik nahi, nola edo hala, emakumeak haurren zaintzatik deslotu nahi horretatik, eta ez zelako etxe feminista haurtzaindegi batean bilakatu nahi. Eztabaida horren atzean euren arteko errealitate desberdinak zeuden: batzuek euren seme-alaben zaintzarekin laguntzeko sareak eta bitartekoak dituzte, beste batzuek, ez horrenbeste, eta bereziki emakume migratzaileei egiten die erreferentzia. Halere, ekimenak egiten dituztenean ohikoa da haurtzaindegi-zerbitzua egotea, baina horrez gain, guztien artean adostu zuten haurtzaindegirako espazio propioa ez sortzea.

Zailtasunak zailtasun, gatazka gehienak identifikatzen jakin izan dituzte, eztabaida horiei lekua egiten eta kontsentsu bitartez erabakiak hartzen. Feminismoak badu eskarmentua horretan, eta sukaldea bera metafora bilakatu zaigu prozesu honetan.

Aniztasunaren kudeaketa: abantailak, zailtasunak eta estrategiak

Prozesuaren hasieran saiatu ziren jatorri desberdinetako, adin desberdinetako, aniztasun funtzionaleko edota ingurune desberdinetako emakumeak elkartzen dira eta, oro har, elkarrizketatu desberdinak pozik agertu dira prozesuan emakume askotarikoek parte hartu dutelako. Dena den, ohartu gara, aniztasuna aipatzean, berriemaileek bereziki jatorria dutela mintzagai eta,

honetan ere, badira identifikatu dituzten eta ditugun zenbait zailtasun.

Hasteko, berriemaileek egin ohi duten gu/bertakoen eta besteak/atzerritarren arteko bereizketa sumatu dugu. Sailkapen hori hainbat diskurtsotan agertu da, eta beraz, iruditegian indarra duela ondorioztatzen dugu. Gure ustez ere, irudimenean egun iltzatuta dauden sailkapen horiek iraultze aldera, horien eraikuntzan bestelako aldagaiak (klasea, etnia, ikasketa-maila...) jokatzen duten papera sakonki aztertzea gakoa litzateke.

Aipatu den beste zailtasun bat folklorekeriarako joera da. Esaterako, AMHERen urteroko azoka gastronomikoa hitzordu garrantzitsua da herrian, baina sentsibilitateaz gain, joera paternalistak ere gerta daitezke. Era berean, folklorekeriak badu genero-marka: esaterako, jantzi tradizionalak janzten dituzten gehienak emakumeak dira.

Aipatu nahi ditugun azken bi zailtasunek parte hartzearekin zerikusia dute. Batetik, berariaz zenbait emakumek parte hartzeko dituzten zailtasunak lirake: (1) lanbideagatik (askok etxeko langile edo *interna* moduan lan egiten dute); (2) beren seme-alabak zaintzeko sarerik ez izateagatik; (3) bereziki paperak ez dituzten migratzaileek modu iraunkorrean antolatuta egon ahal izateko dituzten oztopoengatik; edo (4) hizkuntzagatik (euskaragatik), zeren Euskal Herrira datozen migratzaileen portzentaia handi bat latinoak dira, eta bestela ere, egoera diglosiko baten baitan gaztelania ikastea lehenesten da gehienetan. Dena den, ikertu ditugun beste herri batzuetan ikusi ez dugun moduan, KPFko asanbladetan itzulpen zerbitzua egon da, eta hori posible izan ez denean, interpretazio xuxurlatuaren sistema erabili da.

Emakumeen etxeaz harago, interesgarria da herrian AMHER elkarteko gazteek herriko gaztetxeko gazteekin egin duten prozesua eta harremana, Gazte-Bizilagunak, euskal gizartean arrakasta osoa duen SOS Arrazakeriak bultzaturiko Bizilagunak proiektu orokorraren baitan.

Aniztasunaren kudeaketan garrantzitsua izan den beste estrategia bat izan da herrian feminismoaren alorrean gazteekin egindako lana: aipatu moduan, Udalak herriko ikastetxeetan modu sustraituan eta iraunkorrean inplementatu ditu berdinta-

sunarekin lotutako prozesuak egiteko programak, haurtzarotik unibertsitatera bitarteko hezkuntza garai desberdinetan.

Ikerketan zehar oso modu argian agertu zaigu elkarlana, artikulazioa eta aniztasuna sustatzeko bide zuzena elkar ezagutzea dela.

“Elkarrekin gauzak egitea”: kontrahegemoniarako aliantzak

Ikerketako beste esparruetan ikusi moduan, Hernanin ere badago “gauzak elkarrekin egiteko” edo “elkarrekin egoteko” joesa bat, non, talde desberdinek osatzen dituzten plataformak eta egitasmoak oso garrantzitsuak izaten ari diren. Oro har, gainera, mugimendu sozialetan ikusi dugu une honetan arrakasta dutela bereziki egitasmo konkretuek, denbora iraupen mugatua dutenak, eta uneko konpromisoa eskatzen dutenak.

“Elkarrekin egotea” eta “elkarrekin gauzak egitea” herritartasun-ereduarekin ere lotu dezakegu. Oro har, identifikatu dugu herritartasuna ulertzeko modu anizkoitzak eta inklusiboak sortzen ari direla, parte-hartze sozialari eta elkarlanari oso lotuak. Hernanin, adibidez, aktibismoan dauden pertsonak berdin aplikatzen die herritartasunaren ulerkera hau bertan jaiotakoei zein migratzaileei: herritarra da herriaren dinamikan parte hartzen duena, eta, beraz, egoera legala alde batera edo bigarren maila batean uzten dute. Elkartasuna, parte-hartzea, elkar ezagutzea, eta elkarren arteko zaintza garaturik, oztopoak oztopo, herritartasunaren proposamen partekatua egiten da, zeinak orain arteko zapalketa-esparruak gaindituko baititu: generoa, jatorria, klasea, hizkuntza, besteak beste. Eta horrela joan dira euren arteko sareak eta jardunak ugalduz.

Zenbait erronka

Elkarrekin egote eta jardute horretan, ikusi dugu feminismoa zutabe garrantzitsua bilakatu dela, eta beste herri-mugimendu askotan eragina duela.

Dena den, emakumeen etxeetara eta KP Fra itzuliz, ondorioz-

tatu dugunez, hauek dira agerian gelditzen diren hainbat erronka nagusi:

- Ekimen kolektiboetan ahalik eta jende gehien inplikatzeko asmatzea, nahiz eta modu eta gradu ezberdinetan izan.
- Aniztasunean jardutea, guztion interesak eta taldeen arteko ezberdintasunak aintzat hartuz.
- Gogoeta eta eztabaida sustatzea, baina adostasunera heltzeko ere gai izatea.
- Gazteak erakartzeko ahalmena izatea.
- Edota erakundeak arazo sozialen konponketan ardura hartzera behartzea, aldi berean mugimenduen autonomia errespetatuz.

Beste aldetik, garrantzitsutzat jotzen dugu arrazismoaren kontrako politikak arretaz behatzea, betiere gizarte-aniztasuna artikulatzen duten aldagai desberdinak gurutzatzeko moduak aintzat hartuz. Ikerketan, saiatu gara kulturarteko espazio horietan parte hartzen duten pertsona desberdinen ikuskerak jasotzen. Dena dela, guk geuk ere zailtasunak ditugu erabiltzen ditugun zenbait kategoriarekin, eta une honetan horren gainean gogoetatzen ari gara. Adibide gisa, emakume migratzaileak, migratzaile direla etengabe izendatzeak ez dakigu zenbateraino laguntzen duen euren egoera eta aldagai propioak ulertzen/azaltzen, edota errepikapenaren bitartez eta zehaztasun gehiagoren faltan, kategoria horren eraikuntza estatiko bat ekoizten dugun. Kasuan kasuan, begirada zorrozteari ekin beharko diogu. Argi duguna da guk geuk ere etengabe galdekatu eta berrikusi beharko ditugula gure jardutea eta ikuspegia.

Gure iritziz, KPF prozesuan eta emakumeen etxeetan, oro har, elkartasun, metodologia eta politika egiteko modu berriak sortzen ari dira. Elkarrekin politika egiteko espazio aproposak dira: norbanako eta talde feminista desberdinen artean elkartzeko, alianztzak gertatzeko, eta ondorioz, euren arteko aniztasuna kudeatzeko esperientzia aberatsak gertatzen baitira bertan, zailtasunak eta talkak barne. Hernaniren kasuan, argi dago KPFren sorrera herriko eragile desberdinak elkartzeko eta emakumeen arteko harreman afektibo eta politikoak indartzeko gunea izaten ari dela.

7. Herri-mugimenduen jardunbideak, eraldaketak eta elkarlanak sozioekologian

*Iñaki Barcena, Josu Larrinaga Arza
eta Andere Ormazabal Gastón*

Gipuzkoako gizarte-mugimenduak ikertzerakoan, hasieratik ikusi dugu eremu horretan jadanik ez daudela bakarrik kanpaina ekologista ‘klasikoak’, ingurumenak jasandako edo sufri litzakeen erasoek kontra abiatzen direnak (errausketaren aurkako mugimendua eta Satorralai modukoak); badaude beste mota batzuetako ekimen asko, agian txikiagoak edo hain ikusgarriak ez direnak, baina geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari direnak: energia, etxebizitza, elikadura, eta bizitzaren beste aspektu inportanteak ikuspegi alternatibo batetik eraiki nahi dituztenak. Hiritarren parte hartzea eta botere hartzea helburutzat, mugimenduen praktiken errepertorioa malgutu eta aberastu da; eraldatu egin da parte-hartze politiko konbentzionalaren baliabideen edota gobernantzaren mekanismoekin.

Gizarte-mugimenduen soziologian agertzen zaigun fenomeno zahar/berri hau, gure ikerketa honetan, hortaz, mugimendu *ekoalternatiboa* deitu dugu: ikerketan, batez ere, ikuspegi ekologista batetik lantzen diren erakunde, kanpaina eta proiektuetan jarri dugu arreta; baina ez bakarrik ingurumen-arazo larrien au-

rrean ukazio- edo oztopatze-politikak aldarrikatzen dituztenak, baita abiapuntu eraikitzaile eta eraldatzaile batetik maila mikro/ertainean bizitzeko bestelako aukerak –etxebizitza, elikadura, energia horniketa...– bultzatzen eta egikaritzen dituztenak ere, estrategia bipolar horretan (batzuetan barne tentsioekin ere) politika instituzionalaren esparruko agenteekin harreman baita bipolarrak ere mantenduko dituztenak.

Mugimendu ekologistaren antolaketa: asanbladak ardaztutako egiturak

Borondatezko lana eta aktibismoa erabiltzen dute kasu guztietan; egin behar diren lanak aukeratzekoan jendeak nahieran egiten du, eta batzorde edota talde espezializatuak sor daitezke, aktibitate horiek errazago taxutze aldera. Oinarria boluntario-lan hori izanik, gaur egungo gizartearen lanaren banaketaren egituraren denbora libre gehiago eduki dezaketen kolektibo batzuk gainordezkatzuta egon daitezke. Talde batzuetan, batez ere ekimen ekonomiko izaera handiena dutenen artean, badaude soldatapeko langileak. Kasu horietan, ohikoa da soldatak berdinak izatea eta lanaren banaketa horizontala eta hautazkoa izatea, lan desatseginenak –administratiboak eta abar– denen artean banatuz. Talde hauek ekonomia sozial eta solidarioaren eremuan kokatzen diren kooperatibak lirateke.

Erabakiak hartzeko moduari dagokionez, esan daiteke asanblada dela tresna nagusia, eta kasu guztietan horizontaltasuna azpimarratu eta aldarrikatu egiten da; hau da, taldekide guztien arrazoiak, gogoak, hausnarketak eta gurariak berdin errespetagarri eta eztabaidagarriak dira. Kontsentsu bidezko prozedura da ohikoena erabakiak hartzeko orduan. Eta talde-prozesuei arreta geroz eta handiagoa eskaintzen zaiola ikusi dugu. Metodologia parte-hartzaileek presentzia handia hartuko dute aztertu ditugun herri-ekimenetan, eta horizontaltasuna eta talde-lana bideratzeko dinamizazioa eta bestelako rola banatuko dituzte. Talde txikietako dinamikak zein bideratzailearen rola talde handian eroso sentitzen ez direnen partaidetza ahalbidetzeko tresna dela diote zenbait ekimenetako aktibistek. Eta baita talde barneko asimetriak edo botere-harremanak lantzeko modua ere. Era berean,

modu informalean sor daitezkeen lidergoak ere kezka-iturri bezala definitu dira. Generoa, adina, esperientzia edota bestelako kategoria sozialek sortzen dituzten desorekak ere etengabe aipatuak izan dira talde barruko lan dinamiketan.

Elkarlan sareak eta aliantzak eragin-ahalmena hauspotzeko bidea

Gipuzkoako gizarte-mugimendu ‘ekoalternatiboetan’ ohikoak dira elkarlanak eta plataforma anizkoitzak, zenbait kanpaina eta prozesu aurrera eramateko, nahiz eta talde bakoitzak bere identitatea, antolakuntza eta funtzionamendua mantendu; batzuetan ohikoak dira ere euren arteko mesfidantzak eta elkarrekiko kritikak: tentsio horrek zenbaitetan emaitza positiboak ditu, eta, beste hainbatetan, ez horrenbeste, baina aritzeko era normalizatua dela esan daiteke.

Bestalde, euren ustez, abagune politiko aldekoa izan den kasuetan, hau da, ezkerreko indar politikoa Foru Aldundian edo agintean egon zenean, eta instituzioen aldetik *input* irekiagoa espero denean, hainbat zailtasun eta ahuleziarekin topo egin dute.

Talde hauek guztiek bai merkatuak sorturiko ekimenak –nekazaritza eta basogintza industrialak, espekulazio urbanistikoa, zezenketak,...– baina batez ere politika publiko batzuk –hondakinen errausketa, azpiegitura erraldoiak,...– arbuiatu edota kritikatzten dituzte. Analitikoki nahiko gaitza da zenbait politika publiko eta merkatuaren ekimenak ezberdintzea: basogintza edota zezenketak badira merkatuaren ekimenak, baina politika publikoen babesa behar dutenak, ez baitziren jaioko eta oso gaitz mantenduko ziren edo ezin izango ziren mantendu diru publikorik gabe. Oro har, esan dezakegu gobernantza eredu neoliberalak daukatela kritika-gune nagusizat, eta eredu alternatibo lauso baina sektorialki nahiko definitua defendatzen dutela.

Eta euren ekimenetan topatzen dute ia beti instituzio politikoaren eta enpresen erantzun oso uzkurra (*input*), itxia eta tinkoa; horregatik jotzen dute interesgarri eta beharrezkotzat euren arteko elkarlana eta kolaborazioa, mobilizazio sozial jendetsuak ikusten dituztelako euren aldarrikapenak aurrera ateratzeko modu

bakarra. Askotan kexu dira Gipuzkoako komunikabide handien aldetik ere onarpen uzkur eta itxia jasotzen dutela, eta noizbehinka informazio-iturri horien aurka mobilizazioak eta kanpainak ere bultzatu dituzte.

Bestalde, talde batzuetan aurreikusten dira ekintza zuzen edo disruptiboaren aukerak, baina gutxitan pasatu dira eztabaida teorikoen mailatik. Iraganean halako taktikak erabili dituztenek –AHTren kontrakoek, adibidez– kostu handia pairatu dute judizializazio eta indar polizialen koertzioaren aldetik. Talde batzuek ekimen kontentzioso-administratiboak eta iraupen luzeko prozesu judizialak abiatzen dituzte, betiere iritzi publikoaren mobilizazioaren osagarri moduan edota prozesuak oztopatzeko esperantzarekin. Denek lan egiten dute, maila diferentetan, alderdi politikoekin edota agente sindikalekin.

Gipuzkoako ekimen, plataforma eta kolektibo ‘ekoalternatiboetako’ kideak elkarrizketatu ditugunean, argi ikusi dugu, ekimen berrietan batik bat, genero-zapalkuntzak eztabaidatu eta problematizatu dituztela euren batzar eta jardueretan. Jokamolde sexistak ekiditeko adostasunak eta aldaketak bilatu dituztela. Talde askotan emakumeen kidegoa gizonena baino kopuru handiagoa da, eta ekitaldi publikoetan zein barneko funtzionamenduan emakumeen presentziaren eta parte-hartze orekatuaren aldeko apustua egiten saiatu dira. Taldeen barne-mailako eraso sexistak kudeatzeko protokoloak horren adierazle direla ere esan dezakegu.

Afinitatea aniztasunaren aurrean

Aniztasuna balore positibo bezala defendatzen dute elkarrizketatu ditugun mugimendu ekologistako kideek: ideologikoa, jatorrikoa, maila ekonomikoari dagokiona edo adinarena, esaterako. Dena dela, talde barruko aniztasuna, berri emaitzen esanetan, ez da hain handia; ekimenetan edo saretzean lortzen dutena, aldiz, aberatsagoa litzateke. Ahultasun handiena migratutako pertsonen eta baliabide ekonomiko eskasekoen presentzia ezean legoke.

Gizarte-mugimenduen teoria europarretan azpimarratzen den bezala, halako ekimenek, kasu honetan ‘ekoalternatiboak’,

talde-identitate indartsuak sortzen dituzte, eta zentzu horretan aniztasuna murriztera jo dezakete. Talde ekologista klasikoen kasuan, denboraren poderioz askotan afinitate-taldeak bilakatu dira, antzeko beste talde edo elkarte batzuekiko nolabaiteko elkarren lehian, baina aldi berean elkar topo eginez aliantzen bidez egiten diren kanpainetan. Talde txiki alternatiboak berez oso identitarioak dira, afinitatekoak, baina euren proiektuak lantzeko askotan gestionatu behar dute aniztasuna eta diferentzia.

Lehenago esan bezala, talde ekologista klasikoei askotan ezetzaren aldarrikapenak darabiltzate; hau da, naturarako, jendearen osasunerako, animalientzako, eta kaltegarritzat jotzen dituzten azpiegitura edo ekipamendu, proiektu edota politiken kontra aritzen dira. Ezetzaren perspektibatik, baina askotan proposamen alternatibo positiboak lantzen dituzte –Zero Zabor taldeak, adibidez–, baina ukazioa da euren identitate-seinale handia. Kasu horietan, oso ohikoa da proiektu edo politika horiek bultzatzen dituzten gobernuekiko talka (ikertutako kasuetan, nabarmenki Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala).

Kasu horietan, gainera, taldeak kexatzen dira instituzioen jarrerara oso ezkorra eta itxia ikusten dutelako, askotan legez jaso beharko lituzketen erantzunak (erreklamazio edota informazio publikoaren prozesu formalizatuetan) ez direlako heltzen. Oso aldarrikapen ohikoa da prozesu parte-hartzaileak edota herri-kontsultak eskatzea. Eta batzuetan kontsulta horiek eurek antolatzeko dituzte.

Erakundeen eta mugimenduaren arteko harreman-sareen ezinak eta eginak

Udal mailan, bai ezetzaren politikak egiten dituztenak, bai eta besteak ere saiatzeko dira harreman dibertsifikatuak eta askotarikoak edukitzen, eta askotan emaitza azpimarragarriak lortzen dituzte. Udal gobernuan dagoen alderdiaren arabera izan daitezke halako lorpenak, nahiz eta kasu guztietan aktibistek azpimarratzen duten hurbilen eduki ditzaketan politikariekiko harremanak konplexuak eta gorabeheratsuak izan ohi direla, batez ere alderdi

horiek gobernatzen dituzten kasuetan. Identifikazio ideologikoa partekatzen duten alderdiak oposizioan daudenean harremanak errazagoak izan ohi dira, baina mugimenduak beti saiatzen dira euren independentzia eta irizpide propioak indartzen. Proiektu alternatiboak lantzen dituzten taldeek harreman aberatsak dituzte hainbat herritako teknikariek, berriz ere batik bat udal-edo mankomunitate-mailan.

Bestalde, ikerketa hau osatu duten beste eremuetako analisia kontuan hartuz, esan dezakegu, kasu gehienetan, ekologia soziala bertako herri-ekimenak ehuntzen dituen haria dela; hari fina edo hauskorra izan arren, egitasmo ezberdinetan presente dagoen kezka-iturri dela. Era edo molde ezberdinetan adieraziko dena, bai tokian tokiko esperientzia ekoalternatiboen bitartez, bai eta bestelako ekimenek ekologia soziala zehar-lerro gisa jorratzen dutelako ere. Bereziki aipagarria iruditzen zaigu azken urteotan erraustegiaren aurkako mugimenduak eta gatazka lerroak eragileen arteko elkarreragina edo elkarrekintza elikatzeke izan duen ahalmena.

8. Herritartasunaren (ber)konfigurazioak

*Maddalen Epelde Juaristi,
Julen Zabalo Bilbao eta Iker Iraola Arretxe*

Herritartasuna dimentsio eta ardatz desberdinen arabera

Kontzeptu abstraktu eta definitzeko zailtasunez betea dugu herritartasuna. Izan ere, gutxienez hiru dimentsiotan uler dezakegu:

- Dimentsio juridikoan. Nori dagokion eta nori ez herritartasuna, normalean estatu bati loturik. Zeren arabera aitortzen den, zeintzuk diren arauak, eta abar. Zentzu horretan, leku batean egoera erregularrean egoteari lotuta ere badago, eta horrek dakartzan eskubide eta betebeharrei edo haien gabeziari.
- Identitate kolektiboaren dimentsioan. Talde edo komunitate baten kide sentitzea ere badakar herritartasunak. Besteen-gandik bereiztea eta gurea indartzea izan daiteke beste on-

dorio bat, zentzu irekiagoaz edo hertsiagoaz. Hortaz, nazio-identitateekin lotura izaten du maiz.

- Arlo publikoan parte hartzearen dimentsioa, hots, parte-hartze soziopolitikoarekin. Herritartasunari zentzu bat ematen zaionean, kontzeptu moral bihurtzen dugu: nor da herritar on, zeren arabera, eta abar. Askotan parte hartze horri lotuta ageri zaigu herritar onaren ideia, partaidetza zibikoaren eta kolektiboaren ideari loturik.

Hiru dimentsio, etengabe gurutzatu eta korapilatzen direnak. Normala da, hortaz, zailtasunez betetako kontzeptua izatea, eta hala adierazi dute gure ikerketan jardun duten kide gehienek. Gu-txi landua da, gainera, egunerokotasunean ez baitugu horretaz hitz egiten; oharkabean pasatzen zaigu askotan (estatuak eman ohi duten herritartasun formalaren aitortzarekin gatazkarik ez daukaten norbanakoen kasuan bederen), berarekin harremanetan dauden hainbat gai etengabe aipatuak izaten badira ere.

Hiru dimentsioen nahasketa kontuan harturik, eta ikerketatik atera ditugun informazioak nolabait sistematizatu nahian, lau ardatz hartuko dugu herritartasunaz dauden iritziak azaltzeko: herritartasun objektiboa eta subjektiboa; herritartasun pasiboa eta aktiboa; maila makroa eta mikroa; eta herri-mugimenduak eta erakundeak.

Herritartasun objektiboa eta subjektiboa

Lehenengo ardatza, *herritartasun objektiboa eta subjektiboa*, dimentsio juridikoari eta identitate kolektiboaren dimentsioei loturik doa. Herritartasun objektiboa esango diogu estatuak modu formal batean, eta ezarritako baldintza batzuen pean, estatu horretako kideei onartzen diena, betebeharrak eta eskubideak dituen. Gure ikerketan oso kritikatu izan da ikuspegi hori: batetik, ezkerreko ohiko ideiei loturik, batzuen pribilegioak bermatzeko erabiltzen delako; eta bestetik, zailtasunez betetako baldintzak ezartzen dituelako migratzaileentzat, eta egoera bidegabeak sortzen dituelako horrela. Bestalde, halako irizpideak Euskal Herri-

tik at finkatzen direla ere aipatu da, ez baita euskal herritartasun objektiborik edo formalik existitzen.

Herritartasun subjektiboa, berriz, identitate kolektiboaren gaiari dagokio, nazio identitateari normalean. Ez da izan oso gai eztabaidatua gure berri-emaileen artean, subjektibotasun hori hainbat modutan bizi daitekeelako jatorri eta ideologia ezberdineko kideen artean. Barne-liskarrak saihesteko, badirudi kon-tatu dizkiguten esperientzietan nahiago izan dela naziotasuna bigarren maila batean uztea, eta horren ordez, liskar gutxiago sor ditzaketen beste gai batzuetan elkarlana bilatzea. Izan ere, gai honek inplikazio bereziak ditu Euskal Herrian. Gai bat, ordea, ezin da ezkutatu: euskararen ezagutza eta erabilera. Bertako berri-emaile askok garrantzi handia aitortzen diote euskarari euskal identitatearen eraikuntzan, eta arduraz bizi dute oraingo egoera, ikusten baitute ez dakitenen ikasteko gogoia edo beharra apalduz doala, gazteek bestelako izaera bat ematen diotela, eta migratzaileentzat askotan oztopo modura agertzen dela, ikasteko zailtasunagatik. Azken arazo hori dela eta, batzuek nahiago dute gai horretan gehiegi ez sakontzea.

Migratzaileekiko harremani dagokienez, identitateari buruzko jarrera desberdinak agertu zaizkigu ikuspuntuaren arabera, migratzailearena edo bertan jaiotakoarena den, alegia. Bertakoen etorkinekiko erreakzioa askotan ezkorra dela kritikatzeko da: harrera-gizarteetan maiz kanpoko identitateak ez nabarmentzea bilatzen da, zentzu folkloriko hutsetik harago. Are gehiago, arlo honetan talde desberdinen arteko botere-harreman hain asimetrikoak izaki, kanpokoia baztertzeko joera nabaritzen da batzuetan, esan gabe doan ikuspegi asimilazionista bati loturik. Zentzu horretan, harrera-gizarteari migratzaileek bertakoen ohiturak hartzea ere ez baitzaio gustatzen (kontsumo-ohiturak, adibidez). Aniztasunetik urrun, desberdintasunak estali nahi dira, beti harrera-gizartearen ereduaren arabera, beraz. Herritartasunerako zein eredu hobesten den eztabaidan dago, eta aukera desberdinen aurrean, ikerketako parte-hartzaile askoren ustez asimilazioa nagusitzen dela kritikatzeko da; izan ere, horri izaera negatiboa ematen diote, eta ideala kulturartekotasuna litzateke.

Identitatearen aurrean etorkinek duten jarrerari dagokienez, berriz, beste prozesu eta esperientzia askotan agertzen den

sentsazioa ere nabarmentzen da gure ikerketan: ez hango eta ez hemengo sentitzea. Horren parean, bi lekuetakoak sentitzen direnak sartuko lirateke. Identitate hibridoa, anizkoitza edo trantsizioko identitatea deitu diezaiokegun hori oso presente dago lan honetan.

Egoera berri honetan, zer egin? Aniztasunak identitate desberdinei leku eman beharko liekeela pentsatzen dute berri-emai-leek, eta identitate kolektibo berria sortu. Izan ere, identitatea etengabe aldatzen eta eraikitzen den zerbait gisa ezaugarrituta, oraingo galderei erantzun beharko liekeen identitate berria eraiki beharko litzatekeela agertu da, identitate solidario eta problematika guztien barne-hartzaile. Eta herritartasunaren alde subjektiboa zentzu horretan berreraiki beharko litzatekeela dirudi.

Herritartasun aktiboa eta pasiboa

Bereizi dugun bigarren ardatza, *herritartasun aktiboa eta pasiboa*, arlo publikoan parte hartzearen dimentsioari loturik doa. Garrantzi handia eman zaio gure ikerketan; eta herritartasunaren ulerkerak, oro har, parte-hartze soziopolitiko horri lotua joan ohi da. Alde batetik, herritartasun formalari pasibotasuna leporatzen zaio, eta dudarik gabe, gure ikerketako partaideak bat datoz izaera aktiboa aldarrikatzean. Pasibotasuna biztanle askoren ezaugarria litzateke, kanpoan edo bertan jaiotako izanik ere; baina migratzaileei ere ezar dakieke, azaldu zaigunez, lasai eta ondo bizitzea helburu orokorra baita gizarte honetan, konplikazioetatik urrun. Etorkinek kultura-aniztasun onartua izatea nahiko luke-tela nabarmendu da ikerketan, gehiegi nabarmendu gabe, eta esfortzu berezirik egin gabe. Horren kontra, gurekin harremanetan izandako etorkin batzuek argi diote esfortzua saihestezina dela, jarrera aktibo hori gabe ez dagoela gizarte honetan leku bat egite-rik.

Jarrera aktiboa da, diogunez, gure berri-emaielen iritzietatik jasotako gakoetako bat. Herritartasuna gizartean aktibo izatea-ekin lotzen da sarritan, eta harro daude, adibidez, orain 40-50 urte lortu zen mobilizazio-mailaz. Batzuentzat erreferentzia da oraindik urte horietako aktibismoa, eta hark gaur eguneko he-

rritartasuna ere markatu zuen, neurri batean: inkonformista, antierrepresiboa, aurrerazalea, herritarra... Aktibotasun horrek apalagoa dirudi gaur egun, baina ez da desagertu, eta desberdina izan behar dela adierazten da, gaurko eztabaidei eta ildoeri erantzun behar dielako: emakumearen eta feminismoaren ekarpena, naturarekiko kezka eta ekoalternatiboen mugimendua, euskararen etorkizuna eta euskalgintza, globalizazioa eta migrazioak, eta abar. Galdetutako eragile askok gai horien metaketa edo txirikordatze beharra azpimarratzen dute, lehengo kategoria bakanak ez baitira baliagarri. Aldiz, elkarren arteko gurutzaketa askotarikoak gertatzen dira gero eta malguagoak diren identitateetan.

Jarrera aktiboaren baldintza parte-hartze soziopolitikoa da. Lehentasunezko garrantzia ematen zaio parte-hartzeari, herritartasunaren ezaugarri nagusi gisara. Gorago aipaturiko sektore edo borroka esparru horietan guztietan parte hartzea izango litzateke helburua, baina horretarako gutxieneko baldintzak ziurtatu behar dira: eskubide-berdintasuna aipatzen du berri-emaile askok, jatorri, genero edo egoera edozein delarik ere.

Maila makro eta mikroan kokatzen den herritartasuna

Hirugarren ardatza, *maila makro eta mikroari* dagokiona, arlo publikoan parte hartzearen dimentsioari loturik doa, baina baita identitatearen dimentsioari ere. Laburrago aztertu badugu ere, ikerketan parte hartu duten kideek aipatzen dute badaudela esperientzia txikiak herritartasun berri bat posible dela erakusten dutenak, eta harro agertzen dira haiek prestatutako esperientzia horietaz. Arlo publikoan nola jokatu zalantzan dagoela nabaritzen da: maila makroan aritu beharra aipatzen dute, baina haiek eremu mikroan ari dira gehienbat, eta maila horretan jardun behar-raren garrantzia azpimarratu nahi dute, harreman sakonagoa eta eraginkortasun handiagoa lortzen delakoan. Zalantzez gain, hortaz, identitate-kutsua ere nabaritzen da, *ziurrago* sentitzen baitira maila mikro horretan. Dena den, maila bi horien arteko

mugatzea nahiz hartu-emana konplexua da, eta elkar elikatzen dute.

Erakundeen eta herri-mugimenduen baitako herritartasuna

Laugarren ardatza, *erakundeen eta herri-mugimenduen* arteko harremani dagokiena, hirugarrenaren jarraipena izan liteke, hemen ere arlo publikoan parte hartzearen dimentsioari loturik, identitatearen dimentsioa nahasten baita. Gure ikerketan herri-mugimendutik jasotako iritziak bildu ditugu gehienbat, eta bizi izandako esperientziak kontatzen dituztenean, esan liteke esparru hori lehenesten dutela. Are gehiago, ikusi dugu esperientzia feministetan edo ekoalternatiboetan, esate baterako, nolabaiteko mesfidantza nabaritzen dela erakundeekiko: zintzotasun falta eta herri-mugimenduen lana beren interesen arabera baliatzea leporatzen zaie, oro har. Denak ez datoz bat, ordea, eta kasu horietan asko eskertzen da erakundeen esku-hartzea, bide berriak irekitzeko balio duelakoan.

9. Hainbat ondorio

Txostenaren azken zati honetan pausu bat gehiago eman nahi dugu. Horretarako, atal ezberdinetan aurkeztu ditugun ikerketen emaitzak aintzat hartuz, hainbat gogoeta eta ondorio plazaratuko ditugu.

Ikerketaren arreta-gunea Gipuzkoako gizarte-mugimenduen eta herri-eragileen artean bultzatzen ari diren ekintzak izan dira, nahiz eta analisiaren parte handiena lau udalerritan (Arrasate, Donostia, Errenteria eta Hernani) kokatu dugun. Kontuan hartu dugu Gipuzkoa lurralde plurala dela, bai herritarren ezaugarri eta bizi-baldintzei dagokienez, baita bertan diharduten herri-eragileen ugaritasunari dagokionez ere.

Gure helburu nagusia izan da bizi izaten ari garen krisi eta gizarte-aldaketaren testuinguruan, talde, eragile eta herri-mugimenduen artean garatzen ari diren elkarguneak eta prozesu komunak aztertzea.

Aldian behin entzuten dugu enpresaburu edo agintari politikoren bat esanez gainditu dugula azken hamarraldian bizi izan dugun krisi ekonomikoa. Halere, jakin badakigu langabezia orokortu egin dela, lan-baldintzak txarrera egiten ari direla eta pentsioak, zerbitzu publikoak eta enplegu publikoa izoztuta daudela, gizarte-

-ezberdintasunak areagotuz²⁰. Hain justu, egoera horrek eta gure sistema demokratikoak dituen gabezien kontzientziak dira gure ikerketan parte hartu duten eragileak erresistitzera eta gizartearen eraldaketari behin eta berriro ekitera bultzatzen dituztenak.

Sarreran esan bezala, hipotesi batetik abiatutako lana da hau: testuinguru honetan, eta oztopoak oztopo, eragileen artean sortzen diren sareetan eta elkarlanean, egitasmo, elkartasun eta herritartasun modu berriak gauzatzen ari dira, maila materialean zein sinbolikoan. Horretarako, bost ardatz nagusik zeharkatzen dute gure azterketa: (1) kultur eta gizarte-aniztasuna (migrazioak sorrarazten duenari lehentasuna emanez); (2) genero-berdintasuna (analisi emakumeen etxeen ekimenetik abiatuz); (3) hizkuntzen aldeko ekintzak eta, bereziki, euskararen gaineko pertzepzioa edota erabilera; (4) sozioekologia eta ingurune-justizia; eta (5) herritartasunaren konfigurazioak.

Ikerketa burututa, esan dezakegu, ñabardurak ñabardura, gure hipotesia egiaztatu ahal izan dugula, txostenaren azken parte honetan erakusten saiatuko garen bezala.

Eragileen eta herri-mugimenduen ezaugarri eta eraldaketa orokorrak

Elkarte eta mugimendu sozialen barne antolaketa bi geruza edo mailatan gauzatu ohi da: batetik, muinean dagoen jende multzo txiki eta oso aktiboa (talde eragilea deitu ohi dena), eta, bestetik, haren inguruan orbitatzen duen talde zabalagoa, baina inplikazio-maila txikiagokoa. Bi geruzetako dinamika hori berez sortzen den egitate bat da, baina diseinaturiko estrategia ere izan daiteke, ekimen bat aurrera atera ahal izateko baliatua, Errenterian eta Hernanin martxan jarri duten emakumeen etxeetako sorrera-prozesuetan antzeman daitekeenez.

Bestela, edozein mugimendutako kide gehienek borondatezko lana egin arren, zenbait elkartetan badaude liberatuak, hau da,

²⁰ Ikus, esate baterako: https://www.berria.eus/paperekoa/1832/026/003/2017-10-29/bpgaren_aurreikuspenek_ez_gaitzatela_despistatu_krisia_ez_dago_gaundituta.htm

diru truke lan egiten duten norbanakoak. Eta egitasmo zehatzak abian jartzeko unean, adituak diren dinamizatzailleak kontratazeko joera zabalduz joan da, horrek dituen onurekin eta galerekin: batetik, egungo testuinguruan bideragarri egiten ditu hainbat proiektu, eta talde-prozesuen zaintzak proiektuaren oinarriak sendotzen ditu; bestetik, talde eragilean parte hartzen ez duten kideen konpromiso- eta erabaki-mailan eragin ezkorra izan dezake. Horren erakusgarri izan daitezke geroago aipatuko ditugun Errenteriako eta Hernaniko Emakumeen Etxeen prozesuak edo Hernaniko AMHER elkartearena; azken horretan, zenbait batzorde aktibo aritu arren, elkartearen asanblada orokorrik ez da apenas egiten, eta horrek migratzaileen parte-hartze politikoa konplexuago egiten du.

Halaber, proiektu kolektiboetan, gero eta ohikoagoa da elkarreetako ordezkariak eta norbanakoak batera egotea. Norbanakoen bidez parte-hartze soziopolitikoko moduak aberastu egin daitezke, ohiko militantziaren konpromiso-mailarik eta loturarik gabe.

Edonola ere, zenbait elkarrizketatuk mugimendu zein elkartetan parte hartzeko metodologiak birpentsatzeko beharra ere adierazten dute, eta bide horretan sartu dira hainbat talde, batez ere, partaide gazteak eta feministak dituztenak.

Elkarteen ibilbideari dagokionez, epe luzeko hausnarketa eta plangintza estrategikoetan oinarrituta egotea baino gehiago, epe laburreko ekintzek eta egitasmoek markatzen dute haien jarduna. Eta horretan, aktibismoaren eta dinamika ezberdinen indarra, originaltasuna eta ausardia dira eragile nagusi. Hau da, arrakasta handiena dutenak egitasmo zehatzak izaten dira.

Orain arte esan dugunaren ildo beretik, militantziaren edo aktibismoaren kontzeptua birdefinitu egiten ari dela ere aurkitu dugu, epeetan mugatuagoa, ekintzen inguruan gauzatua eta konpromiso-maila desberdinetarako aukera emanez. Hein berean, behin baino gehiagotan, elkarteen edo gizarte-mugimenduen ohiko egitura ez da egokiena izaten egungo aktibismo-maila edota erakunde politiko-administratiboen erritmoa eta koordinazioa

mantendu ahal izateko. Eta hor ere zenbait erritmo-talka identifikatu ditugu, aurrerago esango dugun moduan.

Mugimenduen dinamikak ezaugarritzen duen beste elementu bat espazio fisikoaren erabilera da. Oro har, hainbatek gune propioak dituzte, baina, aldi berean, ekimen ugari herriko kale eta plazetan burutzen dira. Egitasmo kolektiboen kasuan, emakumeen etxeak adibidez, espazio berriak eta partekagarriak sortzea da helburua, erakundeen jabetza edo babesarekin normalean, eta horrek erronka ezberdinak sorrarazten ditu.

Gure ikerlanean ardatz nagusitzat hartu ditugun eragileei (feminismoa, migratzaileen aldekoa, euskalgintza eta ekologismoa) erreparatuta, baina harago ere, azpimarratu behar da mugimendu gehienen partaideen batz besteko adina altua izan ohi dela, Hernaniko kasua eta mugimendu ekologista aparte utzita, non gazteen presentzia pixka bat altuagoa den. Mugimendu ekologistan, halere, partaideak 30 urtetik gorakoak izaten dira.

Feminismoa zutabe nagusia. Emakumeen Etxeak

Gizarte-mugimenduei dagokienez, feminismoa oinarri nagusia bilakatu da edonon, eta herri guztietan antzeko ibilbidea izan du: XX. mendearen amaieran, elkarte feministen dinamikak beherako joera hartu bazuten ere, mende berriarekin gero eta indar gehiago hartzen ari da mugimendu hau. Horren adierazgarri ditugu, hiru elementu aipatzearen, honako hauek: gure kaleak, gaur bai eta bihar ere bai, jendez betetzen dituzten mobilizazioak; emakumeen etxeak sortzeko proiektuak; edota azken hamarkadan jaio diren gazteen talde berriak, adibidez, Arrasaten edo Hernanin. Harago ere joanda, argi gelditzen da feminismoa bera beste mugimendu eta eremu askorentzat zehar-lerro, elikagai eta akuilu ezinbestekoa dela. AMHER emakumeen taldea edo sozioekologiaren eremuan dabilzan feministak dira horren lekuko. Espazio 'ekoalternatibo' mistoetan, esate baterako, emakumeen arteko aliantzak eta elkarlan-dinamikak sortzen dira, eta mugimendu feministan parte hartzen duten kideen lana aitortzekoa da, espazio mistoetan genero-desorekak bistaratzeko eta lantzeko bideak zabaldu baitituzte; esate baterako, gaur egun eraso sexistak kudeatzeko

protokoloak. Horrekin batera nabarmendu nahi dugu ‘desberdinen’ arteko harreman libreak eta orekatuak sustatzeko, partaidetza eta lan egiteko molde irekiak eta inklusiboak inplementatu direla kasu askotan. Metodologia parte-hartzaileagoek taldeen izaera eta taldeen arteko aliantzak eta elkarlana hobetu dituzte. Neurri batean, talde-prozesuen zaintzak eta kudeaketa horizontalak lidergo itogarrirei eta barne-desorekei aurre egiteko bitarte gisa ezarri dira. Eta hor ere badute protagonismoa feministek.

Euskal Herrian zabaltzen ari den emakumeen etxeen fenomenoaren analisiari lehentasuna eman diogu gure ikerketan, planteatzen dituen berritasun, esangura eta proiektioagatik. Emakumeak biltzeko, politika egiteko eta formakuntzarako gune diren etxe horiek mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa dira, erakundeen eta berdintasuneko teknikarien babesa eta laguntza ezinbestekotzat ohi dutena. Arrasaten eta Donostian aspaldi daude emakume eta feminista guztiak barne hartzen dituzten etxeak, nahiz eta Arrasatekoak Emakume Txokoa izena izan. Errenterian eta Hernanin, aldiz, sortzeko prozesuan ari dira. Hernanin, gainera, gizon batzuk ere parte hartzen ari dira. Modu paraleloan, udalerri askotan Berdintasun Kontseiluak sortu dira, non zenbait erabaki hartzen diren, baina ez udal-berdintasun politikarekin zerikusia duen guztia. Kontseilu horietan, beren osaera betiere herrien araberako delarik, udalaren ordezkariez eta teknikariez gain, talde feministetako eta auzo elkarteetako hainbat kidek parte hartzen dute, baita, zenbait kasutan, emakume solteek ere. Hori bai, feministentzat erakundeekiko harremana kezka-iturri ere bada.

Erakundeekiko hurbiltasun horrek eragin ezberdinak izango lituzke, baina, batez ere, gazteen parte-hartzea uxatuko luke, elkarrizketatuen ustez. Hala ere, bai Donostiako Emakumeen Etxearen funtzionamenduan bai Hernaniko Kulturarteko Plaza Feministaren sorreran, gazteen presentzia bermatzen ari da. Edozein kasutan, erakundeekiko menpekotasuna erregulatzeko neurriak ere aurkitu ditugu. Adibidez, Errenterian, etxea udal-talde zehatz bati edo alderdi politiko jakin bati lotutako zerbait izatea nahi ez dutenez, alderdi politiko guztien bermea lortzeko konpromiso-dokumentua prestatu dute. Arrasateko Emakume Txokoa 2003an sortu zen, emakumeen topagune eta prestakuntza leku bat izateko asmoz. Bizkaiko Ermukoarekin batera, Euskal He-

rriko lehenak izan ziren. Donostiako Emakumeen Etxeak (DEE), berriz, 2010ean ireki zituen bere ateak (baina prozesua 2007an hasi zen), eta erreferentzia nagusietakoa bilakatu da, ez bakarrik Gipuzkoan, baita Euskal Herri osoan ere. Era honetan, deigarria da bertan bultzatzen diren proiektuen kopurua eta askotarikotasuna, emakumeen eskubideen defentsa sutsua egitetik mugimendu feministaren topagune izateraino. Hasieratik, bultzatzaileen kezka etxe hori zerbitzu-zentro edota kultura-etxe ez bihurtzea izan da, baina, zailtasunak zailtasun, esan daiteke emakumeen parte-hartzea eta ahalduntzearen dimentsioak (norbanakoena gutxienez) beste guztien gainetik daudela.

Espazio fisikoari dagokionez, eztabaida interesgarriak aurkitu ditugu etxe ezberdinen analisisian, bai etxearen kokalekuari dagokionez (esate baterako, erdigunean egotearen edo ez egotearen abantailak edo desabantailak) bai barruko espazioa antolatzeari dagokionez ere. Horrekin batera, Donostian, adibidez, espazio falta izugarria dago, batez ere, jende asko biltzen dituen jardueretarako, eta irtenbide bila ari dira: lokala aldatu, etxe filialak sortu auzoetan, jarduerak etxetik kanpo egin... Hernaniren kasuan, Udalaren erabakiz, AMHERrekin partekatuko dute Kulturarteko Plaza Feminista, eta horrek tentsioak eta gogoetak eragin ditu, nahiz eta, azkenean, partaide guztiek aukera moduan ikusten duten gaur egun.

Puntu hau bukatzeko, ondorioztatu daiteke emakumeen etxeen inguruan agerian gelditzen direla ez bakarrik zeintzuk diren euskal feministek aurrean dituzten hainbat erronka nagusi, baizik eta herri-eragile gehienek dituztenak; hala nola:

- Ekimen kolektiboetan ahalik eta jende gehien inplikatzeko asmatzea, nahiz eta modu eta gradu ezberdinetan izan.
- Aniztasunean jardutea, baina guztion interesak eta taldeen arteko ezberdintasunak aintzat hartzea.
- Gogoeta eta eztabaida sustatzea, baina adostasunetara heltzeko ere gai izatea.
- Gazteak erakartzeko ahalmena izatea.
- Erakundeak arazo sozialen konponketan ardura hartzera behartzea, aldi berean mugimenduen autonomia errespetatuz.

Migratzaileen aldeko eta arrazismoaren kontrako elkarteak

Espero genuen moduan, herri guztietan aurkitu ditugu arrazismoaren aurka dauden elkarteak edo eragileak eta haiek bultzaturiko ekimenak. Dena den, berezitasunak ere badaude. Arrasaten eta Erreterian, adibidez, jatorri ezberdinen arabera daude antolatuta (hegoamerikarrak, afrikarrak, pakistandarrek, marokoarrak, sahararrak...). Hernanin, aldiz, denak batera.

Migratzaileen aldeko elkarteek bultzatzen dituzten jardueren artean, hainbat herritan eta auzotan urtero antolatzen diren Bizilagunak programa (SOS Arrazakeriarekin batera) eta Jaialdi Gastronomikoak eta Azokak nabarmendu behar ditugu. Jaialdien eta azoken inguruan, gure elkarrizketatu batek bere kezka agertu du, esanez migrazioaren gaiak lanketa askoz sokena eta epe luzeagokoa behar duela eta ekimen horiek elkar topatzeko aitzakia baino ez direla. Hernani oso herri aktiboa da migratzaileen eskubideen defentsan, eta han dagoen AMHERren jarduna gailentzen da arrazoi ezberdinak direla tartean: herrian dituen erroak (migraziotik haragoko hainbat dinamikan eragin zuzenarekin); arestian aipatu dugun migratzaile guztien antolaketaren bateratasuna; elkartearen barruan dagoen Emakumeen taldea; eta Bizilagun Gazteak programa, non gaztetxea eta AMHER gai izan diren inguruko gazteak biltzeko. Dena den, aintzat hartu behar da ere AMHERren Zuzendaritza Batzordean migratzaile gutxi dagoela, eta zenbaiten ustez, elkartean ez da migratzaileen parte-hartze politikorako ahalegin nahikoa egiten.

Hori bai, migratzaileek badituzte berariazko oztopoak modu iraunkorrean antolatuta egon ahal izateko: sarri ez dute herri berean denbora luzean irauten; lan-baldintzengatik, eguna eta denbora librea era ezberdinean antolatzera behartuta egoten dira; eta gainera, familia-sareen faltagatik, umeen zaintza partekatzeko arazo handiak izan ohi dituzte. Halere, migratzaileen parte-hartzearen muga ez dago horrenbeste, gure ustez, haiek beren artean antolatzeko unean, baizik eta mugimendu edo ekimen mistoen

koordinazio- edo zuzendaritza-postuetan zein bilkura orokorretan besteekin batera egotean.

Euskararen erabileraren bultzada eta hizkuntza-politikak

Euskararen gaineko pertzepzio soziala, onarpena eta egungo gizartean betetzen duen lekua etengabe aldatzen ari da. Euskal izaeraren osagarri gisa duen garrantzia agerikoa da, eta aipatze-koa da gizarte-mugimenduek aitortzen dioten pisua. Gurean bizi diren hizkuntzen arteko erlazioak herri-mugimendu eta elkarte askorentzako eztabaida eta ekintzarako arrazoi dira. Batetik, euskalduntasunak presentzia nabarmena du guk aztertutako gizarte-mugimenduetan, eta metodo eta bide desberdinak ari dira lantzen euskaldunak ez direnak alboraturik senti ez daitezen. Nabarmendu behar da, oro har, gazteak direla euskara gehien erabiltzen dutenak.

Bestela, gaztelaniak *lingua franca* modura jokatzeko duen rola arazo-iturri da batzuentzat, euskara minorizatua egoteko arriskua ikusten dutelako. Halaber, integrazioa eta komunikazioa errazte aldera, hizkuntza desberdinen erabileraren inguruko hausnarketa eta, ondorioz, plangintza egokiak aurrera ateratzeko beharra argi gelditu da. Euskararen erabilera bultzatzeko urte asko lanean ari diren elkarteekin batera (Arrasateko AED edo Hernaniko Dobera Euskara Elkarte), berriagoak diren erakundeak ere aurkitu ditugu (Arrasateko Geike, esate baterako). Baina, jeneralean, euskara sustatzeko, aniztasuna bultzatzeko eta integrazioa gauzatzeko garatzen dituzten jarduerak eta ekintzak ugariak dira: bileretan xuxurlarien figura erabiltzea, kartelak hainbat hizkuntzatan kaleratzea, eskuorri eleaniztunak argitaratzea eta hizkuntza-aniztasuna erakusteko ekitaldi publikoak egitea dira horietako batzuk.

Hernaniren kasuan, euskararen ezagutza-maila altua da iker-tu ditugun beste herrien aldean. Horregatik, adostasun dezente egon da euskara sustatzearekin, eta horretarako baliabide teknikoetan inbertsio handia egin da. Bakan batzuentzako gaztelania hizkuntza komuna izanik, euskararen etengabeko erabilerak

murru bat eraiki dezake; baina orokorrean itzulpen-zerbitzua eta xuxurlarien sistema politika positibo baten parte sentitzen dira. Xuxurlariena edonon erabiltzen ari dela ere azpimarratu behar da.

Arrasateri dagokionez, aipatzekoak dira euskararen inguruko konpromisoa eta ekintzaitasuna, eta horiek modu eraginkorrean bideratzeko erakutsitako abilezia. Oro har, gizarte-mugimenduetan jendearen parte-hartzeak gora egin ez badu ere, nabaria da euskararen aldekoen kemena eta lanerako prestutasuna. Gainera, Debagoienan euskaltzaletasuna tokian tokiko komunikabideetan, ludoteketan, udalekuetan, jatorri desberdinekoen integrazioarako zerbitzuetan eta beste hainbat jardueratan gorpuztu da. Premia sozialei euskaratik erantzutea eta horretarako taldeak, erakundeekin batera, plataformak eta enpresa bideragarriak sortzea gakoetako bat izan da.

Donostiako Emakumeen Etxean Berdintasun Sailak bultzatzen du euskararen presentzia, baina erabilera feminista gazteak gauzatzen ari dira. Amaitzeko, esan dezakegu herri-mugimenduek eta elkarteek beharrezkoa ikusten dutela hizkuntzen arteko elkarbizitza eta aniztasun soziala sakonean jorratzea, eta bide horretan erakundeekin batera epe ertain eta luzeko politika berriak eta eraginkorrak diseinatzea.

Esperientzia ekoalternatiboen irakaspenak

Gipuzkoan garatzen ari diren esperientzia ‘ekoalternatiboen’ analisiak eragileen eta haien harremanen azterketa osatzeko baliu izan digu; bi arrazoiengatik: esperientzia horiek ez dira beti mugatzen hiri edo herri batera, baizik eta leku ezberdinetako eragileen artean jorratzen ari dira; eta erakundeekin mantentzen dituzten harremanetan berezitasunak aurkitu daitezke.

Gaur egun, Gipuzkoako herrialdean gutxienik, bi eratako mugimendu ekoalternatiboak aurkitzen ditugu, eta bietako azterketa egiten saiatu gara. Alde batetik, mugimendu ekologista ‘klasikoak’ deitu ditugunak, konfrontatiboak eta ukazioaren perspektibatik erakundeen eta merkatuaren dinamikekin talka egiten dutenak, alegia, gatazka sozioekologikoaren paradigman

aritzen direnak. Bestetik, haiekin batera, bestelako talde eta antolamendu emergenteak, zeinak 'bizitza'-eredu alternatiboak bilatzen ari diren eta produkzio- zein kontsumo-jarduera berriak praktikara eraman nahi dituzten. Azken horiek, ezinbestean, ehundura sozial erakargarri eta irekiagoa behar dute eraikuntza alternatibo horiek martxan jarri ahal izateko, eta beste posizio bat hartzen dute erakundeen eta merkatuaren aurrean. Komunitatearen, merkatuaren eta estatuaren arteko mugak lausotu egiten dira azken ekimen horietan, eta hibridazio-kasuak ugaritzen ari dira.

Alabaina, kasu askotan, alde bateko zein besteko mugimendu, plataforma eta elkarteak aliatu moduan agertzen dira batera, eta pentsatzen dugu haien arteko sinergiak, itxita ikusten duten sistema politiko-instituzional baten aurrean dituzten eragiteko gaitasun mugatuak areagotzeko intentzioarekin egiten dutela. Eragileen arteko saretze-lana ekimen zehatzetan oso presente egon da; Bizitza Da Handiena egitasmoan, adibidez.

Dena den, zaila dute eragile klasiko zein berriek taldeen arteko lankidetzaz mantentzea eta elikatzea, horrek indar eta energia bereziak eskatzen baititu. Horrela, gai edo arlo tematiko komun bat topatzen dutenean, turismoaren auzia adibidez, aterki bategarritzat jo dezakete eta elkarrekin errazago lan egin. Hala eta guztiz, eta baturik ere, arazo larriak ikusten dituzte sistema politiko zein ekonomikoan eraldaketa sozialak eragiteko.

Taldeen arteko lan hori posible izateko, oso garrantzitsuak dira harreman eta konfiantza pertsonalak, kide desberdinen artean sortzen direnak eta herrialde txikietan errazago sor daitezkeenak. Loturak taldeetatik harago suertatzen dira maiz.

Horrekin erlazionatuta, borroka-moldeetan ere arrasto edo tankera berriak sumatzen eta eztabaidatzen ari dira eraginkortasun politikoaren mesedetan.

Bestalde, ikerketa-lan hau osatzen duten beste eremuetako analisia kontuan hartuz, esan dezakegu, kasu gehienetan baina batik bat Donostian, Erreterian eta Hernanin, ekologia soziala bertako herri-ekimenak ehuntzen dituen haria dela; hari fina edo

hauskorra izan arren, egitasmo ezberdinetan presente dagoen kezka iturria dela.

Era edo molde ezberdinetan adieraziko da, bai tokian tokiko esperientzia ekoalternatiboen bitartez, eta baita bestelako ekimeneke ekologia soziala zehar-lerro gisa jorratzen dutelako ere. Berziki aipagarria iruditzen zaigu azken urteotan Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak eta gatazka-lerroak eragileen arteko elkarrekin edota elkarrekintza elikatzeko izan duen ahalmena. Hiri-hondakinen kudeaketarekin lotuta, adibidez, hainbat udalerrietako jaietan abian jarri diren kanpainak konfluentzia horren isla direla esan daiteke.

Herri-mugimenduen arteko aliantzak eta eztabaidak/gatazkak

Azterturiko herri guztietan aurkitu ditugu ‘gauzak elkarrekin egiteko’ joerak, bai ekimen iraunkorretan bai egitasmo puntualago edo noizbehinkakoetan (herri-festen antolaketa, kasurako). Egungo dinamika bereizgarria den arren, iraganeko erreferentzia garrantzitsu bat ere gogoan izan du baten batek, ‘las viejas unidas de acción’. Baina gaur egun, heldu zein gazte, argi dute guztiek eragiteko bide bakarra elkarrekin aritzea dela.

Horrela, eragileen arteko elkarguneak egon badaude, nahiz eta agian ez izan batzuek nahiko luketen bezain ugariak eta arruntak, eta modu baikorrean baloratzen dira elkarlan horiek, aberasgarriak eta interesgarriak elkar ezagutzeko, elkarrengana gerturatzeko, aurreiritziak gainditzeko, sinergiak sortzeko eta, guztiaren gainetik, indarrak batzeko. Alor berean aritzen diren eragileen arteko hartu-emanak nahiko ohikoak dira, eta alor ezberdinetako eragileen arteko elkarguneak pixka bat puntualagoak dira.

Harremanen arteko nolakotasuna aztertzerakoan, norbanakoen papera eta norbanakoen posizio anizkoitzak elementu garrantzitsua ere direla ondorioztatu dugu. Pertsona batzuk aldi berean dira mugimendu baten edo gehiagoren kide edota erakundeetako ordezkari eta langile. Horrek kontrajarritako ondorioak ditu. Alde batetik, harremanak eta diagnostikoak errazten ditu;

bestetik, batzuetan erakundeak eta mugimenduak ezberdintzeko zailtasunak sortzen ditu, geroago ikusiko dugun moduan.

Arazoak eta oztupoak ere badaude: elkarlana bera batzuetan ez da erraza, ez da beti asmatzen formularekin, eta eztabaidak eta tentsioak sortzen dira. Eztabaida horiek gai askorekin loturik egon daitezke, hurrengo paragrafoetan ikusiko dugun bezala. Batzuetan, eragileen artean lidergo negatiboak daude, arrazoi ezberdinak direla medio: kide batzuek erabakiak hartzen dituztelako gainerakoekin hitz egin gabe; zenbait kontu ezartzen dituzte taldearen iritzia eskatu gabe edo eurena lehenetsiz eta bestelako arrazoiak direla medio. Horrek eragozten du talde barruko erlazioak horizontalak izatea, eta eskutik ekartzen ditu tentsioak, liskarrak eta deserosotasunak. Eragile batzuek barne-hausnarketak egin dituzte arazo horiei aurre egiteko.

Beste batzuetan, erabaki zailak edo konplexuak hartu behar dira, hala nola, gune baten barruko antolaketa eta eginkizunen formulazioa nola egin. Baina iraganean noiz edo noiz gertatzen ziren banaketak eta sektarismoak gutxitu egin direla dirudi, gizarte-mugimenduen artean bederen, nahiz eta praktikan harreman-sareak ez diren hainbeste zabaldu.

Taldeen ala kideen arteko tentsioen aurrean eta gatazka egoerak ekidin ahal izateko, oinarrietara jotzea eta komunean dituzten elementuetan arakatzea izaten da hainbat elkartek eta herri-mugimenduk erabiltzen dituzten mekanismoak. Elkarrearen barruko lan-dinamika azkarragoak, kideen arteko harreman zuzenak eta espazioen eta lanen karakterizazio egokiak egitea ikusten dute gatazkek alboratzeko modu eraginkor gisara. Momentuan momentuko baldintzetara moldatzen jakitea ere bada, mugimendu sozialetako kideen iritziz, gakoetako bat, aniztasuna indartuz, antolaketa-moduetan partaideen arteko horizontaltasuna landuz eta helburuak etengabe berregokituz. Kanpo-dinamizazioa ere lagungarria izan daiteke ahalegin horretan.

Honetan ere feminismoak barne-gatazkei aurre egiteko eta eztabaidak modu erresolutiboan bideratzeko duen sozializazioa eta erakusten duen eskarmentua azpimarratu behar dira.

Aniztasuna, errealitatea eta lanketa. Aniztasunaren mugak

Gizarte-aniztasuna eta kultura-aniztasuna gure testuinguruaren ezaugarri nagusietakoak dira. Hori izan da ikerketaren abiapuntuetako bat eta, orain, herri-eragileen egitekoa aztertu ondoren, gehitu behar dugu aniztasuna dela mugimenduen lehengaita eta lema. Etengabeko lanketa ere bai: kolektibo edo proiektu baten nukleotik urrunago daudenengana heldzeak ahalegin bat eskatzen baitu. Eta, gehiago edo gutxiago, guztiok daude lan horretan sarturik.

Hori bai, aniztasunaz hitz egitean, batez ere, migrazioaz, etniaz edo jatorri kulturalaz pentsatzeko joera gailendu da. Kanean edo komunikabideetan gertatzen den bezala, bestalde. Bigarren maila batean gelditu dira adina, hizkuntza edo ideologia. Antzera gertatu da sexualitatearen ardatzarekin, zeina soilik Erretereria-ko ikerketan agertu den, han EHGAM elkarteak duen tradizioari loturik. Erljioari dagokionez, Ramadan garaia eta horren bueltan sortzen diren eztabaidak eta ezulertuak aipatu dira Hernaniko elkarrizketa batean. Azkenik, klasea eta aniztasun funtzionala apenas aipatu diren.

Hori guztia kezkarria da, zalantzarik gabe, eragin ezkorra sor baitezake migratzaileen aldeko politiketan, eta bestelakoetan ere bai.

Generoari, klaseari eta jatorriaren uztarketari dagokionez, argi dugu hirurak daudela elkarrekiko harreman estuan. Beraz, klase soziala ahaztuz gero, hankamotz geldituko dira migrazioaren arloko politikak. Erakunde-mailan (teknikarien lanari dagokionez) ere antzeman daitezke hutsuneak alde horretatik, noiz edo noiz ikuspegi gurutzatuagoak posible egin arren, Erretereria-ren kasuan bezalaxe.

Ikuspegi multikulturalistari dagokionez, kultura diferentiek ezagutzeta eta elkartrukea da gehien aipatzen eta baloratzen dena, baina paradigma multikulturalista nagusia asistentzialismotik eraikia da. Era berean, aniztasuna folklorizatzeak arriskua ere antzeman dugu, migrazioak ekarri duen aniztasuna agerikoenak diren elementuen bidez eginez, janaria edota jantziak, bereziki.

Eta nahi baino gehiagotan, emakumezkoak dira kulturartekotasuna ‘jorratzera behartuta’ daudenak, ez hainbeste gizonezkoak. Elkarrizketatu batzuek jarrera horiekiko guztiekiko kezka agertu dute.

Emakumeen etxeetan, jatorri ezberdinetako emakumeak erakartzeko ahalegina egon badagoela nabaritu dugu, emaitzak ezberdinak badira ere. Horrela, kontuan hartzen dira migratzaileek dituzten ordutegi-arazoak jarduerak programatzerakoan, eta asteburuetan ere antolatzen dira mintegiak eta bilerak.

Donostiako Emakumeen Etxean, adibidez, kontuan hartzen dute jatorri-aniztasuna urteko programa egiterakoan, argi baitute abiapuntu funtsezkoa dela etxea espazio segurua eta eroso izatea eta erreminta eta aukera ezberdinak eskaintzea, emakumeen ahalduntzerako eta zenbait emakume jarduera egonkorragoetan konprometitzeko. Hala ere, ez da beti erraza, eta atzeritik datozen emakumeak ez daude maila guztietan, hala nola, kudeaketa-organoetan. Hernaniri buruz, behin baino gehiagotan azpimarratu dugu AMHER Emakumeen parte-hartzearen onurak.

Adinari dagokionez, Donostiako Emakumeen Etxearen kasuan, adin guztietakoek parte hartzen dute, nahiz eta erabiltzaile gehienak 50 urtetik gorakoak izan. Gainera, gazteak izan dira prozesuan zehar zenbait erabakiren aurrean desadostasun edo kezka gehien planteatu dutenak. Hernaniren esperientzia interesgarria da, han, beste herriekin alderatuta, gazte gehiago antolatuta aurkitzen direlako. Horren oinarrian faktore ezberdinak daude: besteak beste, urteetan indarrean egon den Hernani Tratu Onen Herria proiektua, zeinak, institutuetan egindako lanetik, gazte feministen taldeak sortzeko balio izan duen; edo AMHERrek herri horretan duen berariazko egitasmoa (Bizilagun Gazteak). Horren guztiaren ondorioz, beste herrietan salbuespenezko egoera dena lortu da hemen, maila batean behintzat, gazteak eragileen arteko aliantzen parte ere izateraino.

Formakuntza-maila ere bada kontu garrantzitsua. Horrela, Donostiako Emakumeen Etxeko elkarrizketatu batek aipatu du formakuntza-maila baxua duten emakumeengana gutxiago hel-

tzeko arriskua dagoela, haien beharrei erantzun gabe eta etxea, nola edo hala, elitizatzeo arriskuan eroriz.

Beraz, herri-mugimenduek aniztasuna presente dute eta, mugak muga, berariazko lanketa egiten saiatzen dira. Dena den, zaila da “hemengoak/kanpokoak” edo “gu/besteak” bezalako dikotomiak saihestea, eta behin baino gehiagotan agertu dira banaketa horiek elkarrizketetan eta behaketetan. Konpondu gabeko kontua, beraz. Aurrera begirako erronka.

Atal hau amaitzeko esango dugu aniztasunaz pentsatzerakoan migrazioan dagoen enfasiak bere arriskuak eduki arren, migrazioaren gaiak ere ezin hobeto uzten dituela agerian gure gizartean aniztasunetik jarduteko ditugun zailtasunak, edozein d(ir)ela ere kontuan hartu beharreko faktorea(k).

Sareen mapak ikusarazi dutena

Lau udalerrietatik abiatu diren sareen mapen analisiak eragile eta erakunde mota askotako ardeko harremanak aztertzeo aukera eman digu teknika zehatz bat baliatuz, dauden loturak modu grafiko batean ikusaraziz. Kontuan hartu behar da sareen mapak emakumeen etxeetatik abiatu ditugula Donostian eta Hernanin, Erreterian gizarte-mugimendu ezberdinetatik, eta Arrasaten, euskararen aldeko mugimendutik.

Bada, elkarteak, erakunde publikoak edo mistoak, ekimen sozialeko enpresak, sindikatuak eta alderdi politikoak aintzat hartu dituen azterketak erakutsi du haien artean osatutako sarea trinkoa dela, eta azpimarratzekoa da izaera sendo hori agertzen dela nahiz eta aztergai izan diren eragileak eremu sozial ezberdinetan aritu.

Sortu diren diagramei erreparatuta, sareen harremanak ezau-garritzeko garaian, erdigunean kokatzen diren eragileengan jarri da arreta. Ikerketa honen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartzen duen pisua nabarmentzekoa da.

Erakunde honek jaso ditu aipamen gehien. Aldundiaz aparte, Arrasateko Udala, Donostiako Emakumeen etxea, Donostiako Udala, Erreteriko Udala, Ahmer SOS Racismo, Hernaniko

Udala, Arrasateko Gaztetxea, LAB sindikatua eta Arrasateko Potogorriak taldea agertzen dira, hurrenez hurren, sareko erdiguneak aztertzerakoan. Ikus daitekeenez, goian zerrendatutako eragile gehienek izaera publikoa dute. Halere, ikerketak erakusten duenaren arabera, eragile horien pisua nabarmena izanik ere, mapatik desagertuko balira, gainerako eragileek euren arteko loturak mantenduko lituzkete.

Hain justu, eragileen eta erakundeen arteko harremanez ideia gehiago landuko ditugu hurrengo atalean.

Mugimenduak eta erakundeen arteko harremanak eta talkak

Guk aintzat hartu ditugun udalerrietan aurrera eramaten ari diren hainbat ekimen, esate baterako emakumeen etheen sorrera-prozesua/mantenua edo arrazismoaren kontrako ekintzak, bi aipatzearren, udal-gobernuen (eta hango teknikarien) babesaren eta sostenguaren bidez gauzatzen ari dira. Beste ekimen batzuk, aldiz, erakundeen eremuetatik kanpo garatzen dira edota, kasuan kasu, erakunde hauen kontra eginez.

Edozein kasutan, ia-ia eragile guztiek mantentzen dituzte harremanak erakundeekin. Edozelan ere, horrek ez du esan gura harreman horiek derrigorrez hurbilak, isurkorrak edota positiboak direnik. Sarri askotan, ekologiaren arloan ikusi dugunez, zailak dira eta tentsio, desadostasun eta konfrontazio gogorrak sor daitezke. Beraz, erakundeekiko harremana *continuum* bat bezala ikus daiteke, non, mutur batean, elkarlan estua gertatzen ari den, batez ere ezkerreko udal-gobernuak dituzten herrietan; eta, beste muturrean, berriz, distantzia edota mesfidantza handia dago, guk aztertutako ekimenen artean, sozioekologiaren arloko zenbaitetan, batik bat.

Oro har, esan daiteke hiru faktorek dutela eragin zuzena hurbiltasun/distantzia horretan, batera edo ez joan daitezkeen faktoreak, bestalde: (1) erakundeen buruzagitzan dagoen alderdiaren edo koalizioaren orientazio politikoa; progresistak eta ezkerrekoak diren erakundeekin aukera gehiago dago elkar-ulertzea emankorra izateko. Dena den, hori ez da berme nahikoa, eta ordezkari

politikoen edo teknikarien jarrerak ere ezinbestekoak direla ikusi dugu; adibidez, teknikarien eta eragileen arteko aitortza eman daiteke, azken horiek mugimenduetako kide direnean. (2) Erakundearen eragite-maila; gure kasuan, behintzat, egiaztatu dugu tokiko erakundeek (udalek) gertutasun gehiago erakusten dutela herri-mugimenduen egitasmoekiko. (3) Mugimenduaren beraren izaera edo eremua eta, horretan, hainbat gradu antzemango lirarteke: erakundeak, oro har, errazago inplikatzin dira genero-berdintasun ezaren aurrean, batez ere indarkeria matxista bezalako arazo sozialei dagokienez; eta, salbuespenak salbuespen, bigarren maila batean geldituko litzateke migrazioarekin loturiko arazoe-kiko konpromisoa; eta urrunago, ekologismoarekikoak.

Edozein kasutan, eremu horien guztien inguruan erakundeek egiten dituzten irakurketak ere aintzat hartu behar ditugu. Horrela, berdintasunaren aldeko jarrera ‘irrhoak’ (edo noiz edo noiz arrazismoaren kontra eta ekologismoaren alde egin ohi dituzten adierazpenek ere) badu ifrentzua, nahi baino gehiagotan politikoki zuzenak diren keinuetan gelditzen baitira, emakumeen bizi-baldintza sozialen edo ekonomikoen aldaketa sakona ekarriko luketen diagnostikoetaraino eta neurrietaraino inondik inora joan gabe, Irun eta Hondarribiko Alardeen auzian urtero egiaztatzen denez.

Eragileen proiektu zehatzen kudeaketari begiratuta, egiaztatu daiteke hainbat eragilek (gazteen taldeek, baina ez bakarrik) autogestioan oinarrituriko ereduaren lehenesten dutela eta diru-iturri propioak bilatzen dituztela (jaietan txosnak jartzea, adibidez). Diru-laguntzen dinamika kaltegarria izan daitekeen ustetik, erakundeekiko autonomo mantendu nahi dira, nahiz eta beren ekintzetarako lokal publikoak ere erabili. Esan bezala, erakundeak edo erakundeetako batzuek hainbat proiekturen aurka jo dezakete zuzen-zuzenean, ekimen ekologista askorekin gertatzen den bezala.

Bigarren eredu bat jardueren gestioa eragileena izatea, nahiz eta diru-laguntza publikoak jaso. Talde feminista eta kulturartekotasuna lantzen duten talde askok erabiltzen duten bidea litzateke.

Azkenik, zenbait egitasmok kogestioa edo kudeaketa mistoa dute; esate baterako, emakumeen etxeek. Adibide finkoena Donostiako Emakumeen Etxearena litzateke, non berdintasunaren

arloan, emakumeentzako zerbitzuak eta etxearen dinamizazioa kontrataturiko teknikarien eta langileen esku gelditzen diren, baina etxea sustatzen duen elkarteak eta han funtzionatzen duten batzordeen ordezkariak beste koordinazio osagarri bat burutzen dute, bestearekin uztartzen dena.

Beste aldetik, lehenago esan bezala, udalerrri askotan badaude arlo ezberdinetako kontseiluak, non aktibistak zinegotzi eta udal-teknikariekin batera biltzen diren. Hori orokorra da berdintasunaren arloan, baina kontseiluen osaera ezberdina izan daiteke: taldeek bakarrik parte hartzea edota norbanakoek ere bai. Elkarrizketatu ditugun feminista gehienek iritzi positiboa dute udalen jarreraren inguruan, eta, oro har, batez ere Erreterian eta Hernanin, politikari eta teknikariekiko harremanak nahiko horizontalak direla nabarmendu dute, eta dauden aliantzak eta sinergiak azpimarratu dira. Dena den, kontuan hartu behar da herri horietako teknikariak eta zinegotziak feministak direla (mugimenduko kideak, batzuetan), eta horrek ondorio baikorra dauka nahitaez. Donostiako Emakumeen Etxean bolada ezberdinak bizi izan dituzte udalarekiko harremanari dagokionez, baina autonomia-maila inportantea mantentzea lortu dute.

Eragileen eta erakundeen artean sortzen diren arazoak iturrietako bat batzuen eta besteen erritmoen arteko talkan legoke. Talka hori bi norabideetan gerta daiteke leku berean une ezberdinetan: batzuetan, erakundeek ez dituzte herritarren eta kolektiboen erritmoak errespetatzen, proiektuak aurrera ateratzea helburu behinena balitz bezala, eta ez, aldiz, herritarrek komunitatearen zereginetan eta erabakietan parte-hartzea eta pentsamoldeak eta praktikak aldatzea. Beste batzuetan, erakundeen burokratizazioak eta erabakiak hartzeko modu ortopedikoek ekimenean moteltzea eragiten du, mugimenduetan eragin ezkorrak sortuz. Lankidetzaren eremua izan dadin, beraz, komunitatearen logikak, denborak, hizkuntzak eta ikuskerak lehenetsi behar dira.

Nolanahi ere, kgestioaren eraginik ezkorrenen artean, gure ustez, mugimenduen tutorizazioa deitu dezakeguna legoke. Hau da, herri-eragileen dinamika teknikariek eta politikariek gidari eta lidergo nagusia izatea, eta elkarteak menpeko bihurtzea. Ale-

gia, aktibismo tutelatua; horrek dakarren parte-hartze sozialaren eta ikuspegi kritikoaren pobretzearekin.

Herritartasunaren (ber)konfigurazioak

Herritartasuna hiru dimentsiotan ulertu ohi da, gure hitze-kin esanda: dimentsio juridikoa, identitate kolektiboaren dimentsioa eta arlo publikoan parte hartzearen dimentsioa. Ulerkera hori kontuan hartuta, gure lanean herritartasunaz jaso ditugun iritziak ordenatzeko, lau ardatz bereizi ditugu: herritartasun objektiboa eta subjektiboa; herritartasun pasiboa eta aktiboa; maila makroa eta mikroa; eta herri-mugimenduak eta erakundeak.

Lehenengo ardatzari helduta, gure ikerketan oso kritikatu izan da estatuak modu formal batean bere kideei soilik onartzen diena (herritartasun objektiboa). Ezkerreko ohiko ideiei loturik, batzuen pribilegioak bermatzen ditu halako ikuspegi batek, eta oztopoak baino ez dizkie sortzen, esate baterako, egoera larrian egon daitezkeen migratzaileei.

Baldintza zorrotz horiek ez dira betetzen, aldiz, herritartasun subjektiboan (nazio-identitatea normalean). Euskal Herrian gai garrantzitsua da, eta eztabaidatua, eta horregatik agian bigarren mailan geratu da gai hau, barne-liskarrak saihesteko. Gai bat, ordea, ezin da ezkutatu: euskararen ezagutza eta erabilera, Euskal Herrian nazio-identitateari oso lotuta dagoena. Berri-emaile askok ardura handiz bizi du oraingo egoera, bai ikasteko gogoia edo beharra apalduz doalako, bai gazteek bestelako izaera bat ematen diotela ikusten delako, eta baita migratzaileentzat askotan oztopo modura agertzen delako ere.

Migratzaileen kasuak, hain zuzen ere, kontraesan ugari sortzen du identitateari dagokionez. Alde batetik, harrera-gizarteak ez du maite kanpoko identitateak nabarmen agertzea. Alderantziz, *ez nabarmentzea* izango omen litzateke ideala. Aniztasunetik urrun, desberdintasunak estali nahi dira, beti harrera-gizartearen ereduaren arabera. Herritartasunerako eredia asimilazioa omen da, eta horri izaera negatiboa ematen diote gure elkarrizketatuek: ideala kulturartekotasuna litzateke. Beste aldetik, etorkinak zer sentitzen dira? Beste prozesu eta esperientzia askotan

gertatu den bezala, ez hango eta ez hemengo, edo baita bi lekue-
takoak ere. Identitate hibridoa, anizkoitza edo trantsizioko iden-
titatea deitu diezaiokegun hori oso presente dago gure ikerketan.

Non dago irtenbidea? Identitatea etengabe aldatzen eta erai-
kitzen den zerbait gisa ezaugarrituta, oraingo galderei erantzun
beharko liekeen identitate berria eraiki beharko litzatekeela uste
dute gure berri-emaileek, identitate solidario eta problematika
guztien barne hartzaile.

Bigarren ardatzera pasatuta, herritartasun aktiboa/pasiboa
garrantzi handikoa suertatu da gure ikerketan. Elkarrizketatuek
zalantza gabe hobetsi duten aukera herritartasun aktiboarena
izan da, gizartean aktibo izatea ezinbestekoa da, parte-hartzea da
herritar egiten gaituena. Dena den, argi dago aktibotasun hori ez
dela gaur egun gure biztanleriaren gehiengoa ezaugarritzen duen
aspektua. Pasibotasuna bertako biztanle askoren ezaugarria li-
tzateke, gehienbat, eta hainbatetan migratzaileei ere ezar dakie-
ke: etorkinek beren kulturak onartuak izatea nahi dute, gizarte
berrian esfortzu berezirik egin gabe eroso bizitzea.

Garai batetik ona apalduz joan da herritarren parte hartzea.
Dena den, horrek ez du esan nahi desagertu egin denik; izan ere,
hor ditugu gaurko eztabaida ildoei erantzuten dieten hainbat
mugimendu: feminismoaren, ekologiaren, euskalgintzaren edota
migrazioen inguruan eratzen direnak. Horietan guztietan parte
hartzea sustatzen da, baina horretarako gutxieneko baldintzak
ziurtatu behar dira: eskubide-berdintasuna, esaterako, jatorria,
generoa edo egoera edozein delarik ere.

Hirugarren ardatza maila makro eta mikroari dagokiona li-
tzateke. Maila makroan aritzearen beharra eta garrantzia azpi-
marratzen bada ere, elkarrizketatu gehienak maila mikroan ari
dira, eta harro agertzen dira horretaz. Esperientzia txiki horiek
herritartasun berri bat posible dela erakusten digute.

Bukatzeko, laugarren ardatzean, erakundeen eta herri-mugi-
menduen arteko harremanak aztertzen dira. Gure ikerketan, he-
rri-mugimenduan dabiltzanen aldetik jaso ditugu iritziak batik
bat, eta, beraz, esan liteke esparru hori lehenesten dutela. Are
gehiago, hainbat esperientzian instituzioekiko mesfidantza na-
baritu da: zintzotasun falta eta herri-mugimenduen lana beren

interesen arabera baliatzea leporatuz, esaterako. Denak ez datoz bat, ordea, eta batzuen aldetik biziki eskertzen da erakundeen esku-hartzea, bide berriak irekitzeko balio duelakoan.

Lau ardatzok kontzeptuari aitortu diogun dinamikotasuna frogatu digutela esan daiteke. Ikerketan parte hartu dutenen iritziak jasota, bigarren (identitate kolektiboa) eta hirugarren (arloan publikoan parte hartzea) dimentsioei loturik ikus ditzakegu gehienbat. Haien subjektibotasunetik arloan publikoan jokatzeko eredu berriak bultzatzen dituzte, baina lehen dimentsioarekin egiten dute topo, gutxien kontrolatzen duten dimentsio juridikoarekin, alegia. Dimentsio honetatik eta gizartetik ager daitezkeen oztopoak asko dira, baina horiei aurre egiteko elkartasuna, parte-hartzea, elkar ezagutza eta elkarren arteko zaintza garaturik, proposamen partekatua egiten da, zeinak orain arteko zapalketa-esparruak gaindituko dituen: generoa, jatorria, klasea, hizkuntza... Zalantza asko ez dira uxatu, gizarte berri horren kohesioaren ingurukoak, adibidez, baina itaundutako kideek orain arteko arazoak zehazteko eta zerbait egiteko borondatea erakusten dute, beren buruak gizarteko kide aktibotzat jotzen dituztelako.

...

Txosten hau amaitzeko, eta aletuz joan garen ondorio guztiak biribiltze aldera, esan dezakegu, Gipuzkoan feminismoan, ekologismoan, migrazioan eta euskararen bultzadan konprometiturik dauden eragileen ustez, euskal herritarrak Euskal Herrian bizi diren guztiak direla, aukeretan eta eskubideetan inolako bereizketarik egin gabe. Hori erdiesteko, gizartearen eraldaketa eta guztion ahalegin bateratua ezinbestekotzat jotzen dituzte. Zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo, haien artean ugalduz joan diren sareak eta jardunak dira horren seinalerik agerikoena. Etorrizunera begira badute ziurgabetasuna, baina itzaropena ere bai.

10. Bibliografía

- Bauman, Zygmunt (2002) *Modernidad líquida*. Madrid: Fondo de Cultura Económica.
- Castells, Manuel (1998) *El poder de la identidad*. Madrid: Alianza Editorial.
- De León, Magdalena (comp.) (1997) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia.
- Denman, Catalina; Aranda, Patricia; Cornejo, Elsa (1999) Magdalena de León (comp.) *Poder y empoderamiento de las mujeres*. Bogotá: Tercer Mundo Editores / Universidad Nacional de Colombia. Reseña. *Región y Sociedad*, 11(18):189-197.
- Donati, Pierpaolo (1999) *La ciudadanía societaria*. Granada: Editorial Universidad de Granada.
- Esteban, Mari Luz (2015) “La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable”. *Ankulegi*, 19: 75-93.
- Esteban, Mari Luz (2017) *Feminismoa eta politikaren eraldaketak*. Zarautz: Lisipe (Susa).
- Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta EEP (2016) VI. *Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa*.
https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLGEH_eus.pdf?1499236557

- Giddens, Anthony (1991) *Modernidad e identidad del yo. El yo y la sociedad en la época contemporánea*. Barcelona: Península.
- Gil Araujo, Sandra (2010) *Las argucias de la integración: políticas migratorias, construcción nacional y cuestión social*. Madrid: Iepala.
- Ikuspegi (2019) “Atzerritar jatorriko biztanleak EAEn 2019”. 73. *Begirada*: https://www.ikuspegi.eus/documentos/panoramicas/eus/pan73eus_DEF.pdf
- Hall, Stuart et al. (eds.) (1995) *Modernity: An Introduction to Modern Societies*. Oxford: Wiley-Blackwell.
- Latouche, Serge (2011) *Vers une société d'abondance frugale: Contresens et controverses sur la décroissance*. Paris: Fayard/Mille et Une Nuits.
- Luxán, Marta, Ormazabal, Andere, Txurruka, Unai, y Olatz Daño-beitia (2014) “Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta”. *Jakin*, 203: 93-107.
- Margerum, Richard D. (2007) Overcoming Locally Based Collaboration. *Constraints, Society & Natural Resources*, 20:2, 135-152.
- Martínez Palacios, Jone (koord.) (2017) *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*. Barcelona: Icaria.
- Melucci, Alberto (2002) *Vivencia y convivencia*. Madrid: Trotta.
- Narotzky, Susana, y Paz Moreno (2000) “La reciprocidad olvidada: reciprocidad negativa, moralidad y reproducción social”. *Hispania. Revista Española de Historia*. LX/L(204):127-160
- Prats, Fernando, Herrero, Yayo, y Alicia Torrego (2016) *La gran encrucijada. Sobre la crisis ecosocial y el cambio de ciclo histórico*. Barcelona: Libros en Acción-Icaria
- Sagastizabal, Marina (2017) *La triple presencia: estudio sobre el trabajo doméstico-familiar, el empleo y la participación socio-política*. Tesis Doctoral. Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

- Santos, Boaventura de Sousa (2004) *Democratizar la democracia. Los caminos de la democracia participativa*, México D.F: FCE.
- Soziolinguistika Klusterra (2017) *Hizkuntzen erabileraren kaleneurketa. Euskal Herria*
- 2016.** http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_1.pdf
- Subirats, Joan (2006) Democracia, participación y transformación social, en Alguacil, J. (ed.): *Poder local y participación democrática*. Madril. *El Viejo Topo*.
- Terradas, Ignasi (2002) “Acerca de un posible malentendido sobre la obligación de reciprocidad”. *Endoxa. Series Filosóficas*, 16:113-138. Madril: UNED.
- Tomasello, Michael, Melis, Alicia P., Tennie, Claudio, Wyman, Emily, y Esther Herrmann (2012) “Two Key Steps in the Evolution of Human Cooperation. The Interdependence Hypothesis”. *Current Anthropology*, 53(6):673-692.
- Touraine, Alain (2005) *Un nuevo paradigma para comprender el mundo de hoy*. Bartzelona: Paidós.
- Triandafyllidou, Anna (2001) *Immigrants and National Identity in Europe*. Londres: Routledge.